



«Ablazioa; tradizioaren izenean tortura» erreportajea helarazi digu Juan Luis Mugertzak. ▶22-23

Ines Bermejoren zuzendaritzapean, zortzi emakumeren arte-erakusketa dago ikusgai Leioan. Obren «xarma» goraipatu du itzubaltzetarrak. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



53. zenbakia

2016ko
martxoaren 17tik
apirilaren 6ra arte

Martxoaren 20an, Martiartun egingo dute euskararen aldeko jaia. Berbotsek antolatuta. ▶5



© BERBOTS

BERBETAN MOHAMED EL FTOUH

«Ez dut neure burua beste lanbide batean irudikatzen»

▶16



KULTURA SOPELA

Atsotitza zeinek asmatu

Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa apirilaren 9an egingo dute; hilaren 4ra arte egongo da izena emateko aukera.

Sopelako AEK-k egun osoko egitaraua prestatu du, aurton *Danok bila: edo alua edo zakila* goiburupean. Apirilaren 9ra arte, zerrendako ehun esae-
ra zaharrak ikasteko denbora edukiko dute lehiaketan izena ematen duten taldeetako kideek. Daborduko, bazka-
rian ere izena eman daiteke. ▶11

BERTSO-TXAPELKETA

Finala, Plentzian ▶11



Hurrengo HIRUKA apirilaren 7an kaleratuko da; bitartean, info+: www.hiruka.eus



Zabalera

JOSEBA
SANTXO URIARTE
Filologoa, idazlea, ikertzailea

TripAdvisorrek ez du euskararik onartzen

Txistea balitz, barregarria litzateke; errealitate denez, negargarria dugu! Kontua da behinola lagun batek TripAdvisorren iritzia idazteko eskatu zidala. Gogo handirik ez neukan arren, azkenean amore eman nuen. Gaztelaniaz idatzi nuen, lagun hura Sevillakoa baitzen. Iritzi hura idatzi ondoren, berez-berez egin zitzaidan beste iritziren bat euskaraz bidaltzeko gogo. «Zergatik ez? TripAdvisorren ere, euskaraz!» pentsatu nuen eta idazteari ekin nion.

Laster, baina, erantzun automatikoa etorri zitzaidan erdara garbian; eskainitako hizkuntzen artean hautatu behar omen nuen eta aukeren artean euskararik ez!

Zapuztuta lotu nintzen. Nola liteke Googlek ere onartzen duen hizkuntza bat TripAdvisorrek ez onartzea? Katalana ere ez zegoen zerrendan, kontu egizue! Saiatu nintzen neure kexa eurenganatzan, baina alferrik, bestaldeko makinak ez baitzuen ez mihirik, ez bihotzik.

Orduan foro batean zabaldu nuen neure protesta. Handik gutxira mexikar baten konplizitatezko mezua jaso nuen. Baina hortik gora, zero! Orduan, B plana jarri nuen martxan: «seta eta tema, zahararren sistema». Orduetik hainbat iritzi bota izan dut euskara hutsean. Eta beti erantzun bera.

Harik eta egun batean, bestelako erantzuna jaso nuen arte. Testua ulergaitz samarra zen, erabat ulertezina ez esatearren. Dirudienez TripAdvisorreko «makinak» euskara indonesierarekin nahastu zuen, eta iritzi hauxe argitaratzeko bidea eman: «Txit gomendagarria, kanpo eta barru». Laburbilduz: zorionez, euskara hutsezko mezu bat dago TripAdvisorren. Eta zoritxarrez, euskara hutsezko mezu bakarra dago TripAdvisorren.

Orain *Agure zaharra* abestia gogoratu zait: «Baina guztiok batera, saiatu hura...».

Getxo

Itsasoa eta arkitektura

Getxok itsas ondarea eta ondare arkitektonikoa sustatuko ditu aurreko turismoa erakartzeko.

Getxoko Udaleko Turismo Sailak udalerriko itsas ondarearen eta ondare arkitektonikoaren dinamizazioa sustatuko du aurreko, Getxo «erreferentziatzeko helmuga» lege finkatzeko; hala adierazi du Irantzu Uriarte Turismoko zinegotziak. Horretarako, hainbat ekimen garatuko dute: Algortako Portu Zaharrean jarduera-plan bat martxan ipintzea eta ondarearen ezagutza sustatzea, Bizkaiko Zubitik Portu Zaharrera, besteak beste. Hala, Uriartek jakitera eman duenez, aurreko ekimen elkar eragile batek bat egingo du Etxe Handien paseoagaz; horrek ibilbidea modu desberdinean egiteko aukera emango du; laster aurkeztuko dute *MagicFly Experience* delakoa. Unescok Bizkaiko Zubia Gizateriaren Ondare izendatu zueneko 10. urteurrenean abiatuko dute egitasmo hori.

Zerbitzu eta baliabide turistikoak nabarmentzeko helburuagaz, udalerriko Seinaleen Plan Integralaren lehenengo fasea ere garatuko dute aurreko, Eusko Jaurlaritzaren turismo-seinaleak homogeneizatzeko ekimenagaz bat egingez. Bestalde, Euskal Kostaldea elkartearen barruan, Internet bidezko marketin-plan bat garatzen dabilta: turistak dira estrategiaren protagonistak; sorkuntza-kanpaina bat da, elkar-



Portu Zaharrean jarduera-plan bat martxan jarriko dute turismoa erakartzeko.

teko udalerrien ikuspegia EAEko eragile publiko eta pribatuaren ikuspegiak integratzen du. Era berean, Udalak herriko enpresa turistikoak lan egiten jarraituko du, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetzeko, eta Turismo Mahaiaren lana dinamizatuko du.

2015eko balantzea

Irantzu Uriartek gogorarazi duenez, «2015. urtea Getxoko turismorako urte

ona izan zen. Bisitarien kopuruak gora egin zuen (2014an baino %54 gehiago), eta establezimenduen kalitate turistikoak finkatu egin zen (Helmugako Turismoaren Kalitaterako Osoko Sistemaren diplomaren berritzea)». Uriartek adierazi du Turismo Bulegoak liburuxka berri bat gehitu zela bere argitalpenei: *Getxoz gozatzeko planak*. Bertan jaso zituzten 41 planen bitartez, 180 enpresa ipini ziren ikusgai.

Getxopass turistentzat, 20.000 ale

Bisitarien eta turisteen zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresen artean, 20.000 Getxopass txartel turistiko banatu ditu Udalak; horiek 2017ko Aste Santura arte erabili ahal izango dituzte. Getxopass doako txartel turistikoa da: Getxon kontsumitzen duten bisitariak eta turistak saritzen ditu deskontuak eta opariak eskainiz. Horren helburua da bisitak eta udalerriko baliabide eta zerbitzu turistikoak sustatzea, baita bertoko enpresentzako eta Getxo osoarentzako mozkinak hobetzea ere.

Larrañazubín lan egiten duten irakasleen % 72 finkeak dira



Irakasleen egonkortasun «falta» iragarri zuten.

Isabel Celaa PSE-ko legebiltzarkideak Algortako Larrañazubi ikastetxearen egoeraren inguruan galdetutakoei erantzun die Hezkuntza sailburuak. Cristina Uriarteren esanetan, eskolako irakasle-taldeak ez du «egonkortasun-falta berezirik», irakasleen % 72k behin

betiko lana baitute. Hiru hizkuntzako eredu aplikatzeko prozesuari erantzunez, azaldu du bertako elebitasuna finkatzeko prozesua sustatzen dabiltzala.

Udalagaz elkarlanean

Getxoko Udalagaz elkarlanean dabiltzala argitu du: «igogailuaren gunean egiturazko indartzea helburu duen espediente tramitatzen ari da, zimentatzearen azpi-berritzeagaz lurra finkatzeko, eta gela eta pasabideetan eragindako arrakalak konpontzeko». Udalagaz lankidetzan eta Udalaguntza 2015 aginduaren babesean, Sailak iragarri du eskatu duela eraikinaren estalkian segurtasun-soka instalatzeko diru-laguntza.

Eskola-jantokiko begirale ikastaroak, Gurutze Gorrian

Eskola-jantokiko begirale izateko ikastaroa antolatu du Gurutze Gorriak. Saioak apirilaren 18tik 28ra izango dira, Ariluzeko egoitzan. Eskolak 17:30etik 21:00etara izango dira, astelehenetik eguenera. Ikastaroan parte hartu ahal izateko, gutxienez 16 urte edukitzea beharrezkoa da (gurasoen baimena behar dute adin txikikoek), eta 120 eurokoa izango da ikastaroaren prezioa. Horretarako, Ariluzeko bulegoan izena eman daiteke, goizeko 09:00etatik 14:00etara. Interesdunek NAN eta neurri txikiko bere argazki bat aurkeztu beharko dituzte. Halaber, banku-transferentzia bitartez ordaindu ahal izango dute. Ikastaroak 20 laguntzako lekua besterik ez du izango.

Getxo

«Gaztetxea gure egiten saiatu behar dugu»

«Badator hamargarrena» goiburuagaz, Algortako hainbat gaztek Txorimalo gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu dute; 10 egun iraungo du.



Aurtengo egitaraua Algortako hainbat gaztek antolatu dute; argazkian, horietako batzuk.

IKER RINCON MORENO ▶

Getxoko Txorimalo gaztetxeak 10 urte beteko ditu aurten. Hala, 10 urte horiek ospatzeko 10 eguneko egitaraua prestatu dute: apirilaren 1etik 10era.

Atzerako kontaketa hasi da, zelan doaz prestaketa-lanak?

Irailetik daramagu dena prestatzen, eta dagoeneko egitaraua itxita dugu. Orain, txandak lotzen saiatzen ari gara; 10 egun izango dira, eta horiek betetzeko jende nahiko behar dugu.

Zeintzuk ekitaldi nabarmenduko zenuituzkete?

Herriko jende guztiarentzako ekin-tzak antolatzen saiatu gara. Hitzaldiak egongo dira, okupazioaren eta feminismoaren inguruan; herri-bazkariak, horietakoren bat kutsu kultural batekin; eta Euskal Herriko musika-taldeez gozatu ahal izango da Anestesia eta Itziarren Semeak taldeekin. Iraganari begira ere jarri gara, eta Algortako aspaldiko bi musika-talde lortu ditugu: Libertad Kondizional eta Konter. Horiez gain, DJak, tailerrak, erromeria, antzerkiak eta beste hainbat kontu ere egongo dira.

Gainera, musikari gazteak elkartu eta ospakizunari doinua jarriko diete... Bai, aukera polita zen gaztetxeari abes-

ti bat egitea, eta lehiaketa bat egin ostean, jaso genituen abestietako bat aukeratu, eta herriko musikari desberdinekin grabatuko dugu.

Zelan baloratzen dituzue gaztetxeak herrian egindako 10 urteak?

Hasieran, gaztetxe guztiak bezala, oso arrakastatsua izan zen; eta horrela jarraitu zuen urte luzez. Gero, beherakada bat izan zuen, baina hor mantendu zen, alternatibak eskaintzen. Halere, azken urteotan, ez dakigu modak aldatu direlako-edo, okupazioa ez dago bere puntu gorenean. Ostera, balorazioa nahiko positiboa da, hainbat generazio igaro direlako bertatik, eta poztekoa delako 10 urte betetzea.

Hala ere, iaz Algortako gazte-asanblada desegin zen...

Bai, gazte-asanbladan eta gaztetxean lau gazte inguru gelditu ziren, eta ezinezkoa zen proiektua aurrera eramatea. Hala, hura desegitea erabaki, eta bestelako gazteekin zerbait sortzeko apustua egin zen. Ondorioz, Algortako Gazteak sortu da, eta nahiz eta berdina ez izan, apur bat erreleboa hartu dio.

Etorkizunean, hortaz, zer egingo da gaztetxeagaz?

Orain auzolan-talde bat dago, etxea mantentzeaz arduratzen dena. Halere, prozesu bati ekingo diogu horrekin zer egin adosteko. Herriko jendeak zertarako erabili nahi duen jakin nahi dugu, eta horretarako apirilaren 16an elkartuko gara, zer egin eztabaidatzeko. ◀

Egitaraua

Apirilak 1, barikua

19:00 Hasiera-ekitaldia.

19:30 Bertoko taldeen maratonia.

Apirilak 2, zapatua

15:00 Bertso-bazkaria, Jone Uria eta Fredi Paia gaz. 6 euro.

18:00 Urrats erromeria.

20:30 Kontzertuak: Libertad Kondizional, Konter eta DJ Bull. 4 euro.

Apirilak 3, domeka

18:00 Talo tailerra, San Nikolas plazan.

19:00 Beldurrezko film laburrak, San Nikolas plazan.

Apirilak 4, astelehena

19:00 Hitzaldiak: maitasun erromantikoa, mikromatxismoa; eta clown ikuskizuna.

Apirilak 5, martitzena

19:00 Okupazioaren inguruko solasaldia: Iruñea eta Gasteiz.

Apirilak 6, eguaztena

18:30 Irrien Lagunak: «Euskararen taupadak».

20:30 Belaunaldien arteko afaria.

Apirilak 7, eguena

20:00 Poteoa, dantza gidatuagaz, Algortan barrena.

Apirilak 8, barikua

17:00 Umeentzako tailerrak, San Nikolas plazan.

20:00 Dantza afrikarrak. Sökole, San Nikolas plazan.

20:30 Manifestazioa, San Nikolas plazatik.

22:00 Djak: Kepa Baez eta Nebula Selektah.

Apirilak 9, zapatua

11:00 Azoka, San Nikolas plazan.

11:00 Garrapatu arte tailerra.

12:00 Tortilla txapelketa.

15:00 Bazkaria, eta, ondoren, bingoa

17:30 Dantza gidatua.

21:00 Kontzertuak: Anestesia, Itziarren Semeak eta Printzi Anaiak.

Apirilak 10, domeka

17:00 **oetatik aurrera** Garbiketa, ogitartekoak, eta suziariak.

Apirilak 16, zapatua

19:00 Gaztetxearen etorkizuna zehazteko eztabaida. Lekua: zehaztu barik.

GetxoGasó

**GetxoGason
Euskararekin
bat!!**

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

prentsa · aldizkariak



Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

· Odontologia orokorra
· Ortodontzia
· Periodontzia
· PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

KONTXI
ZVAVBIZKAR
Urdaitegixa
Kalitatezko elikagaiak
zure mahaian
Alangobarri 10, ALGORTA · 94 491 02 93

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Getxo



Egizu elkarteak euskara erabilera sustatzeko irteerak egiten ditu, besteak beste. © EGIZU

Euskararen alde egiteko

Getxoko Udalak 324.881 euro banatuko ditu aurren hainbat eragileren artean, udalerrian euskara sustatzeko.

Udalak 2016an euskara sustatzeko deialdien artean 324.881 euro banatzea onartu du, ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Planak estrategikotzat jotzen dituen arloetan eragiteko, hain zuzen ere, «herritarren ikaste- eta erabiltze prozesuak, helduen euskalduntzea, aisialdia eta kirola, komunikabideak, kultura, eta lan-mundua bezalako arloak estrategikoak izan diren eta izango diren arloetan eragiteko», nabarmendu du Imanol Landa Getxoko alkateak. Izan ere, azaldu dutenez, deialdiek bidea erraztu gura dute normalizazioaren bidean pausoak ematen jarraitzeko. Gainera, diru-laguntzek agerian uzten dute ekimen instituzionalaren eta herri-ekimenaren edo euskalgintzaren arteko osagarritasuna, eta «hori, gizarte eragileekin lan egitea, gure ezaugarria eta lorpena izatea lortu du Getxoko Udalak. Lagundu nahi dugu herritarren hizkuntzaren gaitasuna areagotzen, erabilera handitzen, eta mota askotako ekitaldiak euskaraz gozatzen, eta oraindik lortu ez den helburua egia bihurtzen, hau da, euskaraz bizi nahi duenak hori egin

ahal dezan», adierazi du alkateak.

Euskararen jakite-maila eta erabilerareagotzeko diru-laguntzetarako 90.400 euro bideratuko dituzte. Hain zuzen ere, Udalak 83.400 euro banatuko ditu euskara ikasteko gizabanakoei zuzendutako artean, eta beste 7.000 euro, enpresei ematen dizkien laguntzetarako. Horiekaz batera, Udalak beste zerbitzu batzuk mantenduko ditu euskararen erabilera sustatzeko helburuagaz: tartean, herriko elkartei eskaintzen dizkien itzulpen-zerbitzua, aholkularitza eta ekitaldiatarako aurkezle euskaldunen zerbitzua, eta doan eskaintzen dizkien itzulpen- eta maketazio-zerbitzuak. Era berean, 133.440 euro banatuko ditu euskal kultura sustatzen duten eragileen artean: Bizarra Lepoan, ALBE eta Egizu Getxo Euskaldun elkarteak. Komunikabideetan euskara sustatzeko, berriz, 51.681 euro banatuko dira, «horien zeregina oso garrantzitsua delako hizkuntzaren sustapenerako». Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko ere, 32.000 euro banatuko dituzte, eta, azkenik, euskal kultura sustatzeko ekintzetarako, 17.360 euro. ◀

Zuhaitzak kentzen dabilta Neguri eta Aiboa inguruetan

Martxan dira Neguri eta Aiboa-ko metro-geltokien inguruetako hainbat zuhaitz kendu eta horien orde berriak ipintzeko lanak. Udal arduradunek azaldu dutenez, lanok «segurtasun-arrazoien-gatik» egin dituzte, «Metro Bilbaok eskatuta, trenbideko katenariari kalte egiten diotelako». Denera, hogeitau zehaitz inguru kenduko dituzte, eta horien orde, beste espezie batzuetakoak landatuko dituzte, neurri desberdinekoak eta metroko segurtasunari eragingo ez diotenak.

Lanok Neguri aldean hasi zituzten hilaren 7an, leku bitan. Lehenengoko lan horiek hilaren 11ra arte iraun dute, Kristobal Kolon eta Telleria kaleen inguruetan (Plentzia-Bilbo noranzko trenbidearen ondoan). Bigarren ata-



Bestelako zuhaitzak landatuko dituzte.

leko lanek hilaren 18ra arte iraungo dute, geltokiko «Estankoaren plazan». Gauean egingo dituzte, eta egunez kenduko dituzte gauean ebakitako zuhaitzak. Azken lanak, berriz, Aiboa-ko metro-geltokiaren ondoan egingo dituzte, martxoaren 21etik 23ra, horiek ere gauez egingo dituzte. ◀

Askapenak 2016ko brigadak aurkeztuko ditu Getxon

Askapena antolakunde internazionalista «#brigadak2016» izeneko aurkezpen-ekitaldiak egiten dabil Getxon. Hilaren 16an aurtengo brigaden aurkezpena egin ostean, Argentina eta Uruguai-ko brigaden egondako kide batak bere esperientziak kontatu zituen Itzubaltzeta/Romon. Horren ostean, internazionalistak Algortara hurbilduko dira aurkezpena egitera, hilaren 23an, hain zuzen ere. Eguazten horretan, urte honetarako aurreikusita dauden brigadak aurkeztu ostean, Brasilgo

Lurrik gabekoen mugimenduko (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra, MST) kideakaz egondako brigadari batek bere esperientziak kontatu, eta mugimendu horren nondik norakoak azalduko ditu. Berbalidia Algortako Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1) izango da, arrastiko 07:00etan.

Askapenakoek azaldu dutenez, brigadetan parte hartu gura dutenek hilaren 31ra arte izena eman ahaliko dute. ◀

info+: www.askapena.org
brigadak@askapena.org

Bertoko arbolak landatuko dituzte Azkorri, hilaren 19an

Joan den otsailean egindako aholkularitza bertan behera utzi behar izan zuten eguraldi txarra zela-eta; oraingoan, Tosu Betirako! taldeko gizon-emakumeek bertoko zuhaitzak landatuko dituzte Azkorri inguruan, urteroko ohiturari jarraitu ahal izateko eta Azkorriko basoa berreskuratzeko asmoz. Hori lortzeko, hilaren 19an, zapatuan, ipini dute hitzordua, goize-

ko 10:00etan, Bidezabaleko metro-geltokian; ostean, 10:30ean, Azkorriko aparkalekuan batuko dira. Antolatzaileek ahalik eta jende gehien hurreratzeko gura dute; hori dela eta, edonor hurbildu ahal izango da arbolak landatzeko. Hala, zuhaitzak landatu gura dutenek izena eman dezakete daborduko, helbide elektroniko honetan: tosubetirako@gmail.com. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

Egunero, 24 orduz

www.hiruka.eus



Erandoio

Euskara gehiago Kanpomartxon

Kanpomartxo domekan egingo dute Martiartun, *Euskara gehiago eta auto gutxiago* goiburupean.

Euskararen festa erandioztarra hirugarren aldiz izango da Martiartun, 1994an Berbots Erandioko euskaltzaileen topaguneak antzinako baserritarren ohitura berreskuratu zuenetik. Kanpomartxoren 23. edizioan berritasun nagusi bi izango dira. Alde batetik, festaren protagonista euskara dela bermatzeko, parte-hartzaile denei horretarako konpromisoa eskatu diete antolatzaileek; era berean, dinamizatzaileak ibiliko dira dorretxearen inguruko larreetan, «euskararen erabilera areagotzeko», Berbotseko kideek azaldu dutenez. Beste aldetik, domekan Goierrin trafiko arazorik izan ez dadin, bitartekoak



Antolakuntzak paella erraldoia egingo du. © BERBOTS

ipini dituzte. Kanpomartxora hurbilduko direnek ez dute bertan autoa utzerik izango, ez baitago denentzako lekurik. Halere, gauzak uzteko bakarrik, Martiartura autoz hurreratzeko aukera izango dute, gero autoa atera beharko dute; Elorduy tabernaren zein campu-

seko parkingetan aparkatzeko. Unibertsitatetik Martiarturaino busa egongo da 20 minuturik behin. Gainera, Erandiobusak zerbitzu bereziak egingo ditu, eta Berbotsek ere autobus propioa ipiniko du egun horretan. Hala, Astrabudutik orduero, eta Altagatik 50 minu-

Egitaraua

Martxoak 20, domeka

- 11:00** Erandioko Musika Eskolako trikitilariak.
- 12:00** Dantza-alardea Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi taldeakaz.
- 13:00** Mendibaiarte abesbatza.
- 13:30** Bertso-saioa: Xabier Amuriza eta Oihana Bartra.
- 15:00** Herri-bazkaria.
- 16:00** Bazkalostekoa: Roberto Etxebarria eta Kantagunea.
- 17:00** Kuadrillen arteko herri-kirolak.
- 17:00** *Mugi-mugi* umeentzako erromeria, Sudurkeria taldeagaz.
- 18:00** Dantzaldia Luhartz taldeagaz.

tuan behin izango dira irteerak. Festa goizeko 11:00etan hasiko da, eta egitarauko ekimenez gainera, gozagai izango dira umeentzako puzgarriak, arku-jaurtiketa, jokoak, ezustekoak, taloak, paella, musika eta jan-edanak. Urtero legez, zahatoa zozkatuko dute. ◀



Erandoio-Astrabudua merkataritzaren VISA

txartela aurkeztu dute Erandio eta Astrabuduko merkataritza-elkartek eta Nafarroako Rural Kutzak. VISA-gaz deskontuak egongo dira bazkide-tutako dendetan; Kutzaren Obietako bulegoan eskura daiteke. © ERANDIOKO UDALA

Lutxanako geltokia mantendu gura dute

Erandioko Udal Gobernuak lanean jarraituko du, Lutxanak Txorierri-gaz trenez zuzeneko lotura izan dezan, Joseba Goikouria alkateak jakinarazi duenez. 2017ko lehenengo hiruhilekoan amaituko ei dituzte Bilboko metroaren 3. lineako lanak, eta bertan behera utziko dute iaz berreskuratutako Lutxana-Sondika behin-behineko tren-ibilbidea. Hala, Udalak hainbat eskaera egin du Bizkaiko Garraio Partzuergoan, Euskotrenek Lutxanan duen geltokia zabalik izan dezan, baina oraindino ez du helburua lortu. EH Bilduk babes osoa adieraziz dio Udal Gobernuari, eta tren-zerbitzua kentzen badute, autobusak ipintzeko eskatu du. ◀

Putxera-desafioen hirugarren erronka

Hainbat atzerapen eta oztoporen ostean, martxoaren 20an egingo dute San Lorentzo futbol-zelaian hirugarren elkartasun-desafioa. Domekan, Astrabuduko Futbol Taldea eta Takolos irrati-kluba lehiatuko dira, indabarik gozoenak zeinek egiten dituen jakiteko. Gainera, goizeko 11:00etatik 13:00etara, txikienek gozatzeko aukera izango dute, magia-ikuskizunaz, ipuin-kontalariagaz eta hainbat taillerregaz. Indabak bost euroan dastatu ahal izango dira. Diru hori eta egun horretan Astrabuduko Futbol Taldeak jokatuko dituen partidetan egingo den dirua Ulertuz Bizkaiko ume gorren senide eta lagunen elkarteari emango diote. ◀

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa,
gutxi denik ez prentsa»
Prentsa · Frutu lehorrak
Aldizkariak · Libxerriak
Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
Eraikuntza zerbitzu integralak
Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
rgaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

Jarrai gaitzazu:
f hirukaEus @hirukaEus
www.hiruka.eus

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK
• Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
• Inausketak
• Barrukaldeak lorategi bihurtzea
Axpe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
luberry@euskalnet.net
www.luberry.biz

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34
Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!



Begire nago begire

**JOSU
ESNAOLA ARANGUREN**
Helduen euskalduntzean
irakasle

Oi gu hemen bidean galduak heriotz minez

Zenbat aldiz ez ote dugun entzun garai berriak heldu direla politikara, hala izango da, ez dut nik zailtzen jarriko. Eta badirudi euskalgintzara ere heltzeaz dela garai berria. Paradigma aldaketaz, zoru komunaz edota ikuspegi aldaketa orokorraren beharraz ari dira adituak azken denboran.

Ni ez naiz aditua, gehienez, aritua. Baina neuk ere ikusten dut aldaketaren beharra, are gehiago azken aldian heltzen ari zaizkigun berriak kontuan izanez gero. Esaterako, orain aste bat (2016/03/08) hainbat euskal politikari elebidunen txio zuzenen gaineko informazioa argitaratu zuen BERRIA egunkariak, eta bertan argi geratzen da pertsona horientzat euskarak ez duela lehentasunik. Berripaper berean, eta egun horretan bertan, euskara indartsuen dagoen tokietan ere, hau da arnasguneetan ere, euskara azken urteetan atzera egiten ari dela agerian geratzen da.

Horri guztiari errematea jartzeko, Hezkuntza kontseilariak plazaratu berri dituen datuen arabera, EAEko ikasleen euskara maila azken urteetako apalea da. Eta ez du ematen unean uneko arazoa denik, 2010 urte-tik hona beherantzko joera nagusi baita. Orain artean euskalduntzearen bandera ontzia izan dena ere hondoratzen ari zaigula dirudi.

Badirudi bidegurutze batera heldu garela eta ez dakigula zein bide aukeratu aurrera egiteko, ez dakigula zein den nahi dugun helmugara iristeko jorratu behar dugun bidea. Eta lehenago ere aipatu dut, ni ez naiz aditua, baina badakit bidea ez dela samurra izango, Xalbador zenak zioen bezala euskaldun agertzea ez baita josteta.

Betor lehenbailehen garai berria euskalgintzara, betoz ilusioa eta esperantza. Asmatuko ahal dugu bide on bat aukeratzeko! ◀

Leioa



Umeetako bati Artatza ikastetxean egin diote lekua: bere etxetik hamaika kilometrora.

Erdigunean falta dira umeeek ikasteko lekuak

Herriko ikastetxeetan ume leioaztarrentzako «toki nahikoa» dagoela erantzun zien orain aste bi, hainbat gurasori, Mari Carmen Urbietak alkateak; Change.org plataforman sinadura-bilketa abiatu dute aita-amek. Lekuak «erdiguneko ikastetxeetan» falta direla uste dute. 2015ean Txomin Aresti ikastetxeko eta Alzaga ikastola publikoko urte biko umeen geletan leku gehiago eskaini behar izan zituen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Hala ere, ez dira nahikoak izan. Aldez aurretik matri-

kulatzeko epea igarota, Alzaga ikastola, lau ume kanpoan geratu dira; eta Txomin Arestin, bederatzi. Guraso batzuen urte biko umeak ez diote bietako batean ere lekurik eman; Artatza eman diote. «Egunero hamaika kilometro egin beharko ditugu alaba eskolara eramateko», kexu dira. Mendibile ikastetxea berriro zabaltzea «epe laburrerako irtenbidea» litzatekeela uste dute aita-amek; euren iritziz, «erdialdeko ikastetxeetan umeentzako beste gela bat zabaldu beharko lukete, edo ikastetxe berria egin». ◀

Babes ofizialeko 700 etxek baino gehiagok badute jabea

Babes ofizialeko mila etxebizitza altxatzea agindu zuen orain dela bost urte Udalak; Lamia-kokoak (92 etxe) eta Txorierrikoak (78) noiz hasiko diren eraikitzen jakitea baino ez da falta; oraindik ez dute eman horretarako data zehatzik. Iban Rodriguez Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, Aldapabarrena (159), Arta-

tza (30), Torresolo (126) eta Leioandiko lehengo blokeko (101) pisuek daborduko bizilagunak dauzkate. Bestalde, Leioandiko bloke bi (204) eta Torresolo beste bloke bateko (108) etxebizitzetako bizilagunek aurrez eskuratuko dituzte giltzak. Azkenik, Tellerian (30) eta Leioandin (101), alokairu sozialeko etxebizitzak egiten dabiltza. ◀

Apirilean, jarduera berriak eskainiko ditu Zainduz ekimenak

Zainduz egitasmoaren bitartez, apirilean, maiatzan eta ekainean ikastaro berriak eskainiko dizkie Udalak, laguntzapeko pertsonaren bat etxean daukaten senideei edo haien zaintzaileei. Batetik, apirilaren 4tik 18ra, astelehenetan eta eguaztentean, gaixoa zaintzeko zein mugitzeko orduan lehen sorospenen gaineko ikastaroa emango zaie jagoleei. Eskolak 17:00etatik 19:00etara izango dira. Bestalde, maiatzaren 16tik ekainaren 1era, astelehenetan eta eguaztentean, mendekotasun egoeran dauden lagunek zer motatako zaintza behar duten erakutsiko diete senideei; 16:30etik 18:30era. Udalak garapenerako zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu Zainduz programaren bitartez, etxean bizi diren lagunen zein horien senide eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko; diru-laguntzak ere ematen dituzte. ◀

gizarte-zerbitzuak: 944 801 336

Birziklapen-politika aintzat ez hartzea egotzi diote Udalari

Bosgarren edukiontzia infor-mazio-kanpainarako 32.000 euro «galdu» izana leporatu dio Leioako EH Bilduk Udalari. Koalizio ezkerza-leak kritikatu duenez, «Bizkaiko Foru Aldundiari eskatutako 60.000 euroetatik 27.000 euro baino ez dituzte erabili agintari leioaztarrek». Hala, EH Bilduk dioenez, gainerako dirua ez ematea erabaki du foru-erakundeak. «32.000 euro galtzeak argi uzten du Udalak ez duela birziklapen-politika aintzat hartzen», esan du Aritz Tellitu soberanisten bozeramaileak; «diru hori herritarrei, merkatariari eta ostalariei ikastaroak emateko erabil zitezkeen». Izan ere, EH Bilduren arabera, edukiontzia «hutsik» daude. ◀

Alzheimerrari aurre eginez, futbolaren balioen bitartez

Alzheimerrari aurre egiteko taile-Arrak Leioan ere ematea erabaki du Aldundiak. Leioan, futbola erabili dute gogoratzeko tresnatzat. Teoria horren praktika Athleticen futbolariei ohi batzuen esku dago. Adinekoen egoitza eta zentroetara joaten dira, eta futbolaren eta futbolariek transmititzen dituen balioen bitartez, pertsona horien umezaro, gaztaro eta helduaroko oroitzapenak estimulatzeko dituzte. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Sopela

Ibilbideak areagotu guran

Sopelbus-zerbitzuak bere ibilbideak ugarituko ditu maiatzaren 1etik aurrera, leku gehiagoetara heltzeko.



Neguan erabiltzaile gutxi izaten ditu Sopelbus zerbitzuak. © SOPELA KO UDALA

Sopelbus-zerbitzuak ibilbide gehiago izango ditu maiatzaren 1etik aurrera. Erabaki hori hartu du Udalak, zerbitzu hori neguan herriko hainbat lekutara heltzen ez dela ikusi ondoren. Hala, orain arte egiten ez zuen zenbait gunetan geldialdiak egingo ditu Sopelbusak, barbarako Itsas Alden, Urko kiroldegian eta Jubilatuen Etxean. Udalak eskaintza handitu gura du Sopelbusen ibilbideak berrantolatuz eta ordutegiak moldatuz. Horretarako, lehiaketa abiatzea aurreikusi dute, ardura hartuko duen enpresa aukeratzeko; orain arte zerbitzua eskaini duen enpresaren kontratua apirilaren 30ean amaituko baita; hortaz, zerbitzu berria maiatzaren 1ean bertan indarrean jartzea espero dute udal arduradunek. Ordutegiari dagokionez, ordutegi jarraitua izateko, goiz eta arrastiko ordutegia izatera pasako da: 08:00etatik 10:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. ◀



Jauregizar plazarako proposamen bat

EH Bilduk Jauregizar plaza berritze-ko proposamena aurkeztu du. Diotenez, prozesu parte-hartzaileetan jasotako ekarpenak hartu dituzte oinarri. Hala, honako neurriak proposatu dituzte: plaza elizatik euskaltegira zabaltu, mugak ezabatu, Etxebarri kalearen zati bat oinezkoentzat egin, Akilino Arriola kalea oinezkoentzat egiteko proiektuagaz lotu, eta irisgarritasuna bermatzeko arrapalak ipini. Jolasgune estali bat egitea ere aurreikusi dute, besteak beste. Zabalik dagoen proposamena da, eta Udalera eroango dute aurrekontuetan jasota lotu dadin. ◀

Umeentzako teknologia eta robotika tailerrak, prest

Ume eta gazteei zuzendutako teknologia eta robotika tailerrak eskainiko dituzte apirilaren 1etik aurrera Kurtzio kultur etxean. Horietan parte hartu gura dutenek aldeztatik eman beharko dute izena, hilaren 23a baino lehenago. Hiru motatako tailerrak egongo dira, adinaren arabera; goizeko 10:00etatik 14:00etara arte iraungo dute; guztiak, euskaraz. Tailer horien helburua da robotika eta teknologia berriekiko interesa isiotzea ume eta gazteei. Hala, jardunaldi horren bidez gaztetxoek programazioaren munduan lehen pausoak emango dituzte, modu dibertigarri baten bidez, eta talde-lana eta ekimena landuz. Hori

horrela, 6 eta 8 urte eta 9 eta 11 urte arteko umeek *Bee Bot* edo *Moway* robotak gidatuko dituzte, hurrenez hurren. Ordea, 12 eta 14 urte bitarteko gazteek *Makeblock* robota programatuko dute *Scratchen* bidez. Imagin enpresak bultzatu ditu tailer horiek, eta horiekaz, teknologia berri horiek denon eskura gura dituzte.

Prezioari dagokionez, Sopelan errolatutakoek 4 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, oster, 8 euro. Alabaina, diru-sarrerak bermatzeko errenta dutenentzat doakoa izango da tailerra, udal arduradunek jakinarazi dutenez. ◀

harremanetarako: 944 065 505

Umeentzako ipuin-kontalaria, Kurtzion, apirilaren 2an

Sopelako neska-mutil txikienei baidute zertaz gozatu Aste Santuko oporren amaiera aldean. Izan ere, apirilaren 2an, zapatuan, Kurtzio kultur etxeak ipuin-kontalaria hartuko du, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara. Bertan, 5 eta 10 urte arteko neska-mutilek Ana *Apika* ipuin-kontalariaren kontakizunak eta abenturak entzun ahal izango dituzte. Saioa euskaraz izango da, eta aldeztatik sarrera eskuratu ahal izango da, 3 euroan. Saioaren izenburua *Liburuz liburu* da, eta diotenez, saio horretan liburuak izango dira protagonistak, liburuz liburu joango baitira, liburuen barruan denetarik aurki daiteke-eta. ◀

Seme-alaben adikzioen inguruko tailerra, Kurtzion

Sare sozialak, alkohola, tabakoa, Serosketak, drogak, jokoa... hori guztia gazteen eskura dago, eta adikzioak eragin diezazkieke. Hori dela-eta, seme-alaben adikzioen gaineko tailerra antolatu du Uribe Kostako Mankomunitateak, apirilaren 5erako, martitzena. Saioa gurasoei begira dago antolatuta, eta Kurtzio kultur etxean izango da, 18:00etatik aurrera. Tailerrak ordu biko iraupena izatea aurreikusi dute, eta horretan parte hartu ahal izateko, aldeztatik izena eman beharra dago, doan. Jakinarazi dutenez, saioa gaztelaniaz izango da. ◀

info +: www.uribekosta.org

harremanetarako: preven@uribekosta.org

Irunbat
galp energia
Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

XURRUT
Pizza Bar · Musika zuzenean
946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service
Car Service

hau herkontzatik
ander deuna batxilergora

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Berango

Euritik babestu ahal izateko

Berango-Merana eskola publikoaren patioa estaltzeko, lanak egingo dituzte, 600.000 eurogaz.

Eguraldi kaxkarrari behar bezala aurre egiteko asmoz, Berango-Merana ikastetxeko kanpoaldea estaltzeko egitasmoa martxan ipini du Udalak. Horrenbestez, egun euritsuetan busti barik, ikasleek gune horiek erabili ahal izango dituzte jolas-orduetan, baita kanpoaldean egiten dituzten bestelako jardueretan ere.

Proiektu hori aurrera eroan ahal izateko, Berangoko Udalak ikastetxe horren patioa estaltzeko lanak egiteko lizitazio-prozesua abiatu du. Hala, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ditu horri dagozkion oinarriak.

Arduradunek jakinarazi dutenez, eskola-batzordeak onartutako bestelako aurreproiektu bat dago; halere, lizitatzailak martxoaren 18ra arte aukera izango dute euren proposamenak aurkeztu ahal izateko. Udalak, halaber, lan horiek guztiak egin ahal izate-

ko inbertsioa 600.000 eurokoa izango dela aurreikusi du.

Atzera begiratzuz gero, eskola publiko horrek hainbat obra garrantzitsu hartu ditu azkenengo urteetan, hein handi batean eskolako azpiegitura berritzea eragin dutenak. Egindako lan horiek denek eraikinaren kanpoaldea, leihoak, teilatua eta eskolaren hesia berritu dituzte, besteak beste. Modu berean, gimnasioa eta bestelako gela batzuk zaharberritu dituzte. Ondorioz,

Moreaga hobetzeko proiektua

Moreaga plazako jolaslekua berritu eta jolaserako gailuak beste berri batzuekaz ordezkatu ostean, Udalak plaza estaltzeko ideia-lehiaketa martxan ipini du. Izan ere, jakinarazi dutenez, proiektu hori aurrera eroan ahal izateko auzokideen iritzia eta ideiak jaso gura dituzte, besteak beste. Aurreikusitako proiektuaren arabera, umeentzako aldea estaliko dute, polikarbonatozko estaldura garden batez, euritik babesteko, baina argia pasatzen utziko duena. ◀



Euritik babesteko estalkia jarri gura dute patioan.

Berango-Merana eskola publikoaren modernizazio-lanek 536.963 euroko inbertsioa jaso zuten, 2008. urtean. Diru-kopuru horren zati handiena San

Marcos 2 eraikinean haur-eskola bat zabaltzeko izan zen. 2009an, berriz, 166.992 euro bideratu zituzten hobe-kuntza-lanetarako, eta beste 132.289 euro, mantentze-lanetarako. Horien artean, nabarmentzekoak dira irisgarritasuna hobetzeko hesi arkitektonikoak kentzeko egin zituzten lanak San Marcos 1 eraikinean.

Horri lotuta, arduradunek jakinarazi dutenez, inbertsioak urtez urte egin ditu Udalak; barbarako, 2014an eraikinaren estaldura hobetzeko lanak egin ahal izateko beste 42.000 euro bideratu zituzten. ◀

Programazio berezia antolatu du Gazteguneak

Aste Santuaren etorreragaz batera, hasiera emango diote udalerriko neska-mutilek ia aste biko oporraldiari. Hori dela-eta, Berangoko Udalak eskaintza zabala antolatu du Gaztegunean, udalerriko 15 eta 18 urte arteko gazteek aspertzeko tarterik izan ez dezaten. Hala, martxoaren 26an, zapatuan, emango diote hasiera oporraldietako programazio bereziari; egun horretan, sukaldaritza tailerra egingo dute. Hurrengo egunean, domekan, gura beste krisketa jateko aukera izango dute Gaztegunera bertaratutakoek, palomita-gaua iragarri baitute egun horretarako. Horren ostean, martxoaren 29an, 30ean eta 31n Robotika ikastaroa egingo dute, robotek zelan funtzionatzen duten eta zelan programatu ikasi ahal izateko. Apirila helduan, berriz, Laredora (Kantabria) egingo dute txangoa. Izan ere, apirilaren 1ean, barikuan, Laredoko hondartza zaldiz gurutzatzeko eta Santoñako gotorlekuaren misterioa itsasontziz ezagutzeko aukera izango dute interesa duten

neska-mutil guztiek. Hala ere, adi ibili beharko dute, programazio berezi horregaz gozatu ahal izateko, aldezturik izena eman beharko dutelako, martxoaren 20a baino lehenago. Berangon erroldatutakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, 40 euro. Bestalde, Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Aste Santuan eta Pazko-asteen, Gazteguneak ordu-tegi berezia izango du.

Apirila, jokoetan blai!

Aste Santuko opor-egunen ostean, egunerokoari heldu eta eskola-orduei ekin beharko diete gazteek. Halere, Gazteguneak joko ugari antolatu ditu apirilaren hainbat egunetarako. Hala, apirilaren 8an eta 9an, «Nork daki gehiago?» galdera-jokoa egingo dute bertan, Berangoren gaineko itaunakaz. Apirilaren 15ean eta 16an, berriz, PS Lehiaketa egingo dute; apirilaren 24an, Palomita gaua, eta maiatzaren 1ean, Ipuinetako sukaldaritza. ◀

harremanetarako: berangokogazteak@gmail.com

Hurak eta Lapurrak euskarazko filma, hilaren 26an



Hurak eta lapurrak filma proiektatuko dute.

Martxoa amaitzeaz dagoenean, Berango Antzokiak film bi proiektatu ditu, euskaraz bata, eta gaztelaniaz bestea. Lehenengoa martxoaren 26an izango da, zapatuan. Egun horretan, *Dos dias una noche* 12 urtetik gorakoentzako pelikula aurkeztuko dute: bere lanpostuan jarraitu gura du filmeko protagonistak... Hurrengo egunean, domekan, *Hurak eta lapurrak* adin guztientzako euskarazko filma proiektatuko dute. Horretan, Surly izeneko katagorriaren eta bere lagunaren abenturen berri emango dute. Film horietarako sarrerak doan izango dira. ◀

Eskolara Oinez egitasmoa, apirilaren 11n martxan

Apurka-apurka gorpuztuz doa Eskolara Oinez egitasmoa Berango-Merana ikastetxean. Hori horrela, antolatzaileek aurreikusi dutenez, apirilaren 11n ipiniko dute martxan proiektua, udalerriko lehenengo ibilbideakaz. Joan den hilaren 3an laugarren bilera egin zuten eskolan; han, egitasmoari azken zertzeladak emateaz gainera, orain arte egindako guztia baloratu, eta martxan jartzeko beharrezkoa den guztia zehaztu zuten, besteak beste. Eskolara Oinez egitasmoaren helburua da neska-mutilek ikastetxeetarako joan-etorriak modu autonomoan, seguruan, jasagarrian eta osasuntsuan egitea. Horrez gainera, bertoko ingurumenean ere eragina izango duela uste dute antolatzaileek, gurasoek ez dute-eta autoa behar izango seme-alabak eskolara eramateko. Ikasturte hasieran ekin zioten proiektuari, eta egindako bidearen ostean, apirilaren 11n abiatzea aurreikusi dute. Beste herri batzuetan ere martxan ipini dute egitasmoa: Urdulizen, barbarako. ◀

Gorliz

«Naturaren aldeko grina isiotu gura dugu»

Fanos natur elkarteak *Berez, Gorliz* bildumaren azkenengo liburua argitaratu du; hala, plazaratutako 6 lanakaz, udalerriko natur inguruak zehaztasunez aurkeztu dituzte.



Fanos elkarteko kideek argitaratu dute *Berez, Gorliz* liburuen bilduma.

IKER RINCON MORENO ▶

Seigarren liburuagaz, amaiera eman dio Fanos natur elkarteak *Berez, Gorliz* bildumari. Gorlizko Udalagaz elkarlanean, elkarteko kideek udalerri horretako natur inguruak ezagutarazi eta horiek ezkututzen duten biodibertsitatea azaldu gura izan dute, naturaren aldeko kontzientzia pizteko asmoz.

Otsailean, *Berez, Gorliz* sortaren azkenengo liburua aurkeztu zenuten. Zer kontatzen duzue bertan?

Aurretiaz landu ez ditugun inguru edo habitat naturalak aurkezten ditugu. Horiek agian garrantzi gutxiagokoak dira, eta ia desagertuta daude, berbarako landa naturalak. Presentzia handia duten inguruak ere azaltzen ditugu, baina izatez bertokoak ez direnak, eukalipto-sailak, esaterako. Era berean, itsasertzeko baso ikusgarriak edo antzinako haritzondoak aztarnak erakusten ditugu. Halaber, hiriguneko espazio naturalen bitxikeria batzuk ere aurkezten ditugu, adibidez: trufa bat agertu zela udalerriko biribilgune batean...

Aurreko 5 liburuetan, oster, zer azaldu duzue?

Lan osoagaz, Gorliz inguru naturalak ezagutarazi gura izan dugu, horiek babesteko kontzientzia sortzeagaz ba-

tera. Ahalik eta hizkuntza sinpleena erabili gura izan dugu, interesa eta sorpresa eragiteko. Jakingurak eta helburuok bultzatuta, udalerriko inguru naturalen kokapen orokorra eta laburra egin genuen lehenengo liburuan; ondoren, zehaztasun handiagoko bestelako kapituluak osatu genituen: lurmuturrak, dunak, artadiak eta pinudiak. Esan beharrekoa da 2011n dunak Babes Bereziko Gune izendatu zituztela, Europar Batasuneko baremoen arabera.

Noiz ekin zenioten bilduma egiteari?

Gure taldeak argi zuen udalerria txikia zela, baina biodibertsitate handia ere bazuena, eta dunen ingurua kenduta, beste leku guztiak ez zirela oso ezagunak. Izan ere, duna-inguruaz aparte, ia ez dago bestelako publikaziorik. Hori dela-eta, jakin-min horren eta Udalarren laguntzagaz, 2009an ekin genion lanari, eta Arantza Astobieta garaiko Kultura zinegotziari esker, lehenengo lana argitaratu genuen. Ondoren, 6 urteko programak bestelako elkarten laguntza izan du urtez urte. Era berean, aipatu beharra dago Jone Gurrutxaga Kultur Etxearen arduraduna gugaz egon dela ibilbide guztian.

Eta zer eskaintzen du bada Gorlizko natura-inguruak?

Argitalpenei gainbegirada bat egitea besterik ez dago ikusteko Euskal He-

rrian udalerri gutxi dagoela horrelako aberastasun naturalik daukana, eremu hain txiki batean. Ikus daitekeenez, labarretan *Armeria euskadiensis* endemismo botanikoa dago; duna fosilak dituen duna-sistema dago, non *Himantoglossum hircinum* orkidea agertzen den, besteak beste; Iberiar penintsulan oso gutxi diren lurzoru azidoko artadi kantabriarra dago Fanosen, espezie mikologiko singularrak hartzen dituen; eta *Pinus* familiako 5 espezedun pinudiak, eta abar, eta abar.

Zer-zelakoa izan da lan horien denen harrera Gorlizen?

Salmenten ikuspuntutik, uste dugu harrera ona izaten ari dela. Hala ere, Javier Loidi EHUKo katedratikoaren iritziaz bat egiten dugu; bere arabera, lan horri guztiari etorkizunean emango zaio benetako balioa.

Lan horrez gainera, zer egiten du Fanos elkarteak?

Naturazale amorratuak gara orokorrean, eta inguru naturaletatik ibiltzea gogoko dugu, jakin-minaren begiradagaz, argazki kamara gainean dugu, ikusten dugun guztia jasota izateko. Hala, lana baino, afizioa dela uste dugu. Apurka-apurka jakintasuna jasotzen dugu, eta gustuko dugu ikasitako hori guztia jendeari helaraztea, naturarekiko errespetua eta ingurumenaren kontserbazioa bultzatzeko, besteak beste. Gainera, beharrezkoa duten erakundeak elkarlanean jarduteko prest gaude. ◀

Argazki-lehiaketaren 22. ekitaldia egingo dute aurton Gorlizen

Aurton ere, Gorlizko Udalak Argazki Lehiaketa antolatu du. Aurten goa XXII. edizioa izango da, eta urtero legez, ingurumenean oinarrituta egon beharko dute irudiek. Lanak aurkezteko epemuga apirilaren 10ean ipini dute. Egun horretan, epaimahaiak argazkirik onenak aukeratuko ditu. Azaldu dutenez, kontuan hartuko dituzte honakoak: kalitatea, originaltasuna eta sormena. Saritan, 1.200 euro banatuko dituzte, eta sarietako bat Gorlizen erroldatutako 16 eta 29 urte bitarteko parte-hartzaile bati emango diotela jakinarazi dute. ◀

lanak aurkezteko: gorliz@gorliz.com



Lore eta Landareen V. Azoka izango da apirilaren 3an

Gorlizek Lore eta Landareen Azokaren bosgarren edizioa hartuko du aurten. Azokarako hitzordua apirilaren 3an jarri dute, domeka, 10:00etatik 15:00etara, Eliz plazan. Aurten, azoka egiteaz gainera, doan eskainiko dituzte tailer bi. Lehenengoa 11:00etatik 13:00etara izango da, «Biodibertsitatea erein» izenekoa. Adin guztiei zuzendutakoa izango da hori. Ondoren, helduentzako tailerra egingo dute; 13:00etan hasi eta 15:00ak arte izango da. Bitartean, bertaratutako gizon-emakumeek jangarriak diren basaloreak ezagutu ahal izango dituzte. ◀

Gipuzkoa Kalea, 2
48610 URDULIZ

94 657 15 24
685 764 662

info@kumarazentroa.com

Kumara
zentroa

www.kumarazentroa.com

TERAPIA ALTERNATIBOAK ETA ESTETIKA

Uribe Kosta

Gorliz eta Plentziako udalek elkarregaz behar egiteko «mahai iraunkorra» sortu gura dute

Udal bietako arduradunak orain dela egun batzuk batu ziren, ideiak trukatu eta egitasmoak batera adosteko.



Areatxa kalea asfaltatzeko lanak udal biek ordainduko dituzte.

Gorliz eta Plentziako udalek indarrak batu eta udalerri bien zerbitzuak hobetu guran, udal bien arduradunak batu dira, ideiak trukatu eta etorkizunean elkarregaz lan egiteko proiektuak adosteko; era berean, elkarlanean jarduteko markoa ikertzen dabilta. Daborduko adostutakoaren arabera, Areatxa kalea asfaltatzeko dute lehengo eta behin. Kale hori udalerri biena da, eta nahiko hondatuta dago. Hala, udal biek obra horietarako gastuak partekatuko dituzte, udalerri bakoitzari dagokion metro-kopuruaren arabera. Ekimen hori hasiera baino ez da izango; izan ere, bestelako hirigintza-proiektuak aurrera eroatea aurreikusi dute daborduko, berbarako: Mungia Bidearen noranzkoa aldatzea, eta HAPO bietan lan egitea. Luzera begira,

elkarlanean jarduteko mahai bateratu bat sortzea espero dute, «iraunkorra», David Crestelo Plentziako alkateak iragarri duenez. Arantzazu Olabarrieta Gorlizko Hirigintza zinegotziak gogoratu duenez, orain dela hainbat urte horrelako ekimen bat martxan jartzeko ahaleginak egin ziren, baina ez zen lortu hura gauzatzea. Hala ere, garaia aldatu egin dira, eta udal bietako arduradunek uste dute posible dela proiektua aurrera eramatea. Bileran egindako proposamenen artean, luzera begira, honako hau dago: auzotarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzea, euren eskakizunak behar bezala hartzeko eta horiei erantzuteko. Era berean, diru-laguntzen inguruan berba egingo dutela iragarri dute, alde bientzatko onuragarriak izan daitezkeen helburuak zehazteko. ◀

«Munduan bidaiari» berbaldia izango da barikuan, Armintzan

Aspaldiko partez, Lemoizko Koixi Aeuska-Elkartek hitzaldi- eta argazki-emanaldia antolatu du barikurako, martxoaren 18rako, alegia. Izan ere, Bego eta Enrique auzotarrek orain dela urte batzuk munduari bira eman zioten, urtebetean, eta euren bizipenak kontatuko dizkiete berbaldira bertaratu diren guztiei.

Ekitaldia Armintzako kultur etxean izango da, arrastiko 07:30ean, hain zuten ere. Eurek munduko bazter urrunetan ateratako argazkiak ikusteko aukera ere egongo da; eta ondoren, berbetan jarraitzeko aukera izango dute hara joandako den-denek. Izan ere, tabernaz taberna ibiliko dira-eta poteoan. ◀

Apirilaren 4tik aurrera eman daiteke izena udalekuetan

Udalekuak egitasmoak EAEko 7 eta 13 urte arteko 4.519 neska-mutil hartuko ditu aurten. Horretarako, interesa dutenek apirilaren 4tik aurrera eman ahal izango dute izena. Guztira, 14 instalazio egongo dira, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: Zuhatza, Barria eta Espejo-Valderejo, Araban; Gorliz, Urduña, Lapurreketa, Lurraska, Lauaxeta, Zugaztieta eta Legasa, Bizkaian; eta Orio, Zarautz, Hondarribia eta Segura, Gipuzkoan. 2016 uztailaren 1etik abuztuaren 14ra arte egingo dituzte udalekuak, 7 eta 10 eguneko txandetan, 120 euro eta 174 euroren truke, hurrenez hurren. Egonaldiak euskaraz, edo euskara eta gaztelaniaz izango dira, txandaren arabera. ◀

Getxo eta Sopela ez daude iruzurra jasandakoen artean

Getxoko Udalak jakinarazi duenez, bera ez dago garapenerako lankidetzako proiektu faltsuakaz engainatutako erakundeen artean, azken egunetan hainbat hedabidek hori zabaldu badute ere. Udalak argitu gura izan du Manos de Accion Solidaria izeneko gobernu kanpoko erakundeari ez diola inoiz diru-laguntzarik eman. Sopelako Udalak adierazi duenez, Manos de Accion Solidariak laguntzak jasotzeko eskaera egin zion, baina Udalak ez zuen hori tramitatu, eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatera bideratu zuten. Bertan, Mankomunitateko teknikariek jakinarazi dutenez, ez zuten eskaera tramitatu, ezta diru-laguntzarik eman ere. Erandioko Udalak ez du oraindino



GKE batek egin zituen ustezko iruzurrak.

argibiderik eman. Amurrioko (Araba) epaitegi bat ikertzen dabil Amurrioko Udalak Manos de Accion Solidaria GKEaren kontra ipinitako salaketan, EAEko hainbat erakunderi ustezko iruzurra egin izanagatik. ◀



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN
Emak-Umea eta Pertson-Ona

Emakumeak (H)emen (H)ere

Gogoratzen dituzu ikusitako azken bost pelikulak? Eta euren zuzendariak? Bada emakumezkoen bat horien artean? Egundak, bost filmetatik batek du emakume zuzendaria. Paradoxikoa, kontuan hartzen badugu ikus-entzunezkoen ikasle erdia emakumeak direla. Zer gertatzen da bidean? Ikerketek diote zenbat eta goragokoa izan bere lanbide posizioa orduan eta txikiagoa dela emakumeen presentzia ikus-entzunezkoetan. Berdintasunerako bidean asko falta da, batez ere soldata berdintasunean. Emakumezkoen lanari ikusgarritasuna emateko jaio da (H)emen (H)ere elkarre. Ongietorri garaian gauden hilabete honetan, Ongi etorri (H)emen (H)ere. ◀

Behargintzak 1.155 lagun hartu, eta 48 enpresa sortzea lortu du

Uribe Kostako Behargintzak enpleguari lotuta interesa agertu zuten 1.155 pertsona hartu zituen 2015ean. Halaber, Lan Orientazioaren Zerbitzuaren bitartez, 722 laguni laguntza eskaini zieten. Era berean, 108 lanbatori formazioa eskaini zieten, aktibo egoteko eta euren curriculumak hobetu ahal izateko. Horrez gainera, 242 lan-eskaintzatan parte hartu zuten Behargintzak. Gazteei begira,

berriz, martxan jarri zuen praktiken programa bat. Bestalde, langabezia eta egoera larrian dauden pertsonak kontratatzeke Lanbideren ekimena kudeatu, eta 37 lagun kontratatatu zituzten iaz. Promozio Ekonomikoaren alorrean, berriaz, 244 pertsona hartu zituen, eta horri esker, 48 enpresa sortu ziren; zuzenean, 72 lagun beharrean hastea eragin du. ◀



Egundoko giroa egoten da bazkalosteko finalaurrekoetan eta finalean. JABI ZABALA

Oinarriak

Nork parte har dezake?

Txapelketa taldeka egiten da: bi, hiru edo lau kide; denak 16 urtetik gorakoak.

Izena emateko epea

Apirilaren 4a izango da.

Salneurria

Txapelketan parte hartzeko: taldeak 10 euro. Bazkaria: 20 euro, pertsona bakoitzak.

Ordutegia

11:30 Goizeko ibilbideak, tabernaz taberna.
15:00 Bazkaria, Ander Deuna ikastolan.
17:00 Finalaurrekoak, Ander Deuna ikastolan.
18:00 Finala, Ander Deuna ikastolan.

Zelan eman izena

Telefonoz: 618 574 445 / 695 774 015
 Posta-helbide elektronikoz:
 jose-p@aeek.eus / aitor-f@aeek.eus
 (Esaera zaharren zerrenda eta horien azalpena emango zaizkie parte-hartzaileei)

Esaera zaharrak, bertsoetan

Sopelako Esaera Zaharren Txapelketaren 23. ekitaldia apirilaren 9an egingo dute, AEK-k antolatuta. Apirilaren 4ra arte egongo da izena emateko aukera.

Apirilaren 9an jokatu dute Sopelako Esaera Zaharren XXIII. Txapelketa. Urtero legez, Sopelako AEK-k egun osoko egitaraua prestatu du, aurtun *Danok bila: edo alua edo zakila* goiburugaz. Ordura arte zerrendako ehun esaera zaharrak ikasteko denbora edukiko dute lehiaketan izena ematen duten taldeetako kideek; apirilaren 4ra arte dago izena emateko aukera

(10 euro, talde bakoitzak). Txapelketaren gakoa honakoa da: bertsolariak hainbat bertso botako dituzte, eta taldeek asmatu beharko dute zein esaera zaharri dagokion bertso bakoitza. Ez dago esaerak edozein modutara esaterik, bakoitza zerrenda ofizialean agertzen den modu berean (berbaz berba, eta hizkiz hizki) adierazi beharra dago.

Txapelketak atal bi dauzka: 11:30ak aldera hasiko dira kanporaketak, tal-

deak hainbat ibilbidetan banatuta ibiliko dira. Ibilbideen ondoren, denak Ander Deuna ikastolara igoko dira 15:00etan, bazkaltzeko. Horren ostean jokatu dute finalerdia eta finala, 17:00etatik aurrera. Bazkarira joan

Bertsolariek bertsoa botako dute, eta, horren atzean, zer esaera dagoen asmatu beharko dute

barik ere, aukera dago azken saio horiez gozatzeko. Egun berean ere izena

eman daiteke bazkarirako (20 euro, lagun bakoitzeko); janari gehiago presatu ohi dute, badaezpada. Arrastian, Itxaso Paia eta Odei Barroso izango dira bertsolariak.

Sariak guztiz zehaztu barik daude. Hala ere, antolatzaileek ziurtatu duteenez, parte-hartzaile denek jasoko dute oroigarriren bat; txapeldunek, eta, ziurrenik, bigarrenek ere, bidaia edo egonaldia. Finalera heltzen direnek lau pertsonarentzako bazkari edo afariak izaten dituzte, Sopelako jatetxeetan. Talde irabazlea asmatzen duenak, zozketaren irabazleak eta esaera berria asmatzen duenak sari bana dute. ◀

Hilaren 19an erabakiko da bertsolari-txapelketa

Astebete lehenago Leioan, eta martxoaren 12an Algortan jokatu ziren 2016ko Uribe Kostako Bertsolari Txapelketaren kanporaketak. Hala, sei bertsolari sailkatu dira, zegokien saioa irabazita: Arrate Illaro, Inazio Vidal, Aitzol de Castro, Josu Landeta, Jone Uria eta Imanol Uria. Sei bertsolariakaz batera, jasotako puntuen arabera sailkatu dira beste sei: Peru Vidal, Beñat Vidal, Itxaso Paia, Unai Mendiburu, Peru de Pedro, Miren Loizaga eta Ekaitz Larrazabal *Katxo*. Hamabi bertsolari horiek jokatu dituzte Plentziako finalaurrekoak. Saio horietako irabazleak, eta puntuazioaren arabera

sailkatutako hirurak helduko dira finalera. ◀

Egitaraua

12:00 Poteoa, Batela tabernan hasita.

13:00 Lehenengo finalaurrekoa, Uriola tabernan: Josu Landeta, Peru Vidal, Unai Mendiburu eta Miren Loizaga.

14:30 Bazkaria, Danontzat Gaztetxean.

17:00 Bigarren finalaurrekoa, El Puerto tabernan: Inazio Vidal, Jone Uria, Beñat Vidal eta Peru de Pedro.

18:00 Hirugarren finalaurrekoa, Gorrondona tabernan: Aitzol de Castro, Imanol Uria, Itxaso Paia eta Ekaitz Larrazabal *Katxo*.

21:30 Finala, Danontzat Gaztetxean.

info+: www.albe.eus

El florido pensil niñas Sopelan ikusteko sarrerak, agortuta

Sopelako Udalak jakinarazi duenez, TTanttakaren *El florido pensil niñas* antzezlanak ikusteko sarrerak daborduko amaitu egin dira. Zapatu honetan, martxoak 19, taularatuko dute lana, Kurtzio kultur etxean. Obraren «mutilen bertsoia» estreinatu zenetik 20 urte igaro dira; Kike Diaz de Radaren moldaketak Andres Sopenaren testua du oinarri. Hala, Tanttakak «berriro zabalduko du, 20 urte geroago, eskola nazional katoliko hura; baina, oraingoan, ateburuan, 'Niñas' esaten zuen kartela grabatuta zeukan atetik sartzeko». Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Teresa Calo, Elena Irureta eta Itziar Lazkano aktoreak igoko dira oholtzara. ◀

Euskarazko literatur lehiaketak martxan daude Erandion

Idazteak eta sormenak astia dute beharrezko. Horretarako aukera daukate erandioztarrek apirilaren 4ra arte; Erandioko Euskara Zerbitzuak antolatuta, euskarazko prosa eta nortiz lehiaketak martxan daude. «Erandioztar guztiei zein Erandioko ikasleentzako ikasleei» begirakoak dira lehiaketa biak. Lanak posta-helbide elektronikoz edo posta arruntez bidal daitezke, Euskara Zerbitzuari zuzenduta, eta oinarrietan zehazten diren moduei jarraituz: lehiaketa bakoitzari dagokion inprimakia eta eskatzen diren datuak beteta. Inprimakia antolatzaileen webgunean lor daiteke. ◀

info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com



Kanpomartxo inguruko euskaltzaleon arteko hitzordu bihurtuta. © BERBOTS

ERANDIO

Kanpomartxo Martiartun ospatuko dute aurten

Domeka honetan, martxoak 20, Martiartun ospatuko dute aurtengo Kanpomartxo. Izan ere, antzina, apirilaren hasieran aukeratutako egun eta leku batean batzen ziren Erandioko auzoetako baserritarrak, Kanpomartxo izeneko festa egiteko. Egun horretan, musika-doinuz eta dantzaz bateriko jai-egunagaz gozatzen zuten. Azken finean, erandioztar de-

nen arteko harremanak sendotzeko balio zuen ospakizunak. Hala, hainbat hamarkadatan galduta egon os-tean, orain dela 26 urte berreskuratu zuen baserri-giroko euskal jaia Berboits Erandioko Euskaltzaleen Topaguneak. Orduetik, udalerriko txoko ezberdinak txandakatuz egin dute Kanpomartxo urtetik urtera. Hala, 11:00etatik aurrera, dantzak, jolasak,

bertsolariak, musika... edukiko dituzte, egun osoan, bertan batzen direnek. Besteak beste, Trabudua, Goi Alde eta Uztargi dantza-taldeak, ALBE, Mendibaiarte abesbatza, Goierriko Jai Batzordea, ikastetxeetako guraso-elkarteak, Erandioko Gazte Asanblada eta beste hainbat talde ditu la-guntzaile Berbotsek. ◀

info+ www.berbots.eus

2016/03/17 - 18:00

Futbolariak eta printzesak haur-antzezlan

Altzagako azoka zaharra | Erandio
7 eta 13 urte arteko neska-mutilentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/03/17 - 18:00

Bazan kalabazan saioa
Algortako kultur etxea | Getxo

Ana Meabegaz. 5 eta 10 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/03/17 - 18:00

Ipuin-kontalaria, ingelesez
Kultur Leioa | Leioa

Kataplina-gaz. 5 eta 9 urte arteko umeentzat. Sarrera, doan; gonbidapenagaz.

2016/03/17 - 19:00

Xabier Amurizaren berbaldia
Goiñ Portal kultur etxea | Plentzia

Gorliz eta Plentziako Euskara Agendaren barruan. *Euskalkiak eta euskara batua* bertsolaritzan hitzaldia. Sarrera, doan.

2016/03/17 - 19:00

En la boca del lobo
ipuin-kontaketa

Algortako kultur etxea | Getxo
Cecilia Paganinigaz. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/18 - 18:30

Hysteria filma
Sertutxena | Gorliz

Sarrera, doan.

2016/03/18 - 19:00

Plentziako Kantagunea
Baseliza | Plentzia

Lehenik eta behin entsegu egingo dute baselizan, eta 20:30ean, kantu-jiran abiatuko dira. Parte-hartzea, libre.

2016/03/18 - 19:30

Munduan bidaiari berbaldia
Armintzako kultur etxea | Lemoiz

Koixik antolatuta. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/03/18 - 20:30

Egia bide... askatasunera!
ekitaldi politikoa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo
Ezker Abertzaleak antolatuta. GALEk hildako Xabier Galdeano, etxean preso zendutako Anjel Figuerola eta sakabanaketaren ondorioz hildako Antonia Hernandez omenduko dituzte.

2016/03/20 - 10:30

Herri-lasterketa
Udaletxeko plaza | Sopela

Informazio gehiago: munarri.blogspot.com

2016/03/20 - 18:00

Nerabeentzako film laburrak

Gauegun gaztelekua (Algorta) | Getxo
Zinegoak Nazioarteko Gaylesbotrans Zinemaldiaren pelikula egongo dira ikusgai. 11 urtetik 17 urtera artekoentzat. Sarrera, doan.

2016/03/20 - 18:00

Stand by me Doraemon
animazio-filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/03/20 - 18:00

Faboo, el encanto de la
creacion haur-antzezlan

Areatako musika-eskola | Getxo
Escena Creativa taldeagaz. 4 urtetik aurrerakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

2016/03/20 - 18:00

Futbolariak eta printzesak
haur-antzezlan

Berango Antzokia | Berango
7 eta 13 urte arteko neska-mutilentzat. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

2016/03/20 - 19:30

Honek dena azaltzen du filma
Udondo gaztetxea | Leioa

EkoZinemaldiaren barruan. Jatorrizko bertsioan, euskarazko azpitu-luakaz. Sarrera, doan.

2016/03/21 - 20:00

Zinegoak Hedapenak
Algortako kultur etxea | Getxo

Zinegoak Nazioarteko Gaylesbotrans Zinemaldiaren filmak ikusgai. Sarrera, doan.

2016/03/23 - 19:00

Askapenako brigaden
aurkezpen-berbaldia

Aldai Patronatua (Algorta) | Getxo
Horrez gainera, Brasilen, MSTko kideakaz egondako lagun batek berba egingo du. Doan.

2016/03/26 - 19:00

Dos dias y una noche filma
Berango Antzokia | Berango

12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan.

2016/03/30 - 17:00

Bertsoak eta ipuinak tartekatuko dituzte

Zapatu honetan, martxoak 19, *Kontu eta kontu* ikuskizuna eskainiko du Fer-nando Anbustegi ipuin-kontalariaik, Sertutxena eraikinean. Saioa 18:30ean izango da; sarrera, doan. Antolatzaileek sasoiz heltzeko eskatu dute. ◀

Dantza-plaza egongo da Astrabuduan

Hala gura duten heritarrek aukera izango dute euskal dantzak praktikatu edo ikasteko, zapatu honetan, martxoak 19, Trabudu taldeagaz. Hainbat musikariz lagunduta, dantza-plaza egingo dute 19:00etan, Mendiguren plazan. ◀

Hurrak eta lapurrak umeentzako filma

Martxoaren 27an, domeka, euskarzko animazio-filma eskainiko dute 18:00etan, Berango Antzokian; sarrera, doan. Surly izeneko katagorriaren eta bere lagunen abenturak kontatzen ditu *Hurrak eta lapurrak* pelikulak. ◀

Marko Makako eta Karibeko primateak filma
Areetako musika-eskola | Getxo
Haur Zinema Jardunaldien barruan. Danontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/03/31 - 18:00

Alma salvaje filma
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Genero ikuspegiko Zinema zikloaren barruan. Itzartu elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/04/01 - 2016/04/16

Txorimalo Gaztetxearen hamargarren urteurrena
Txorimalo gaztetxea | Getxo
Ekitaldia eta herriko musika-taldeen maratonia eginez emango diete hasiera ospakizunei. Informazio gehiago: 3. orrialdea.

2016/04/01 - 17:00

Koko, dragoi txikia filma
Areetako musika-eskola | Getxo
Haur Zinema Jardunaldien barruan. Danontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/04/02 - 12:00

Zenbat buru hainbat liburu
umeentzako saioa
Kurtzio kultur etxea | Sopela
3 eta 4 urteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

2016/04/02 - 18:00

Liburuz liburu haur-saioa
Kurtzio kultur etxea | Sopela
5 urteik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

2016/04/02 - 20:00

Carlos Ramos eta David Rubioren bakarrizketak
Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Encomediados umore-zikloaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/04/03 - 10:00-15:00

V. Lore eta Landare Azoka
Eliz plaza | Gorliz
Hazien eta lore jangarrien tailerra egongo dira. Parte-hartzea, doan.

2016/04/06 - 18:00

Ipuinekin jolasean ikuskizuna
Altzagako liburutegia | Erandio
Lur Kortagaz. 1 eta 3 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

* Martxoaren 8ari lotutako ekitaldiak

2016/03/18 - 20:30

Pasio kontzertua
Santa Ana eliza (Areeta) | Getxo
Areetxo abesbatzagaz. Sarrera, doan.

2016/03/18 - 21:00

Dom La Nena abeslari brasildarraren kontzertua
Kultur Leioa | Leioa
Sarrera: 8 euro.

2016/03/19 - 10:00

Zuhaitz-landaketa, Azkorrin Bidezabaleko metro-geltokia | Getxo
Izen-ematea: tosubetirako@gmail.com

2016/03/19 - 10:00

VI. Indaba Txapelketa
Iberrebarri plaza | Gorliz
Bazkaria, dantzaldia eta sari-banaketa egongo dira. Izen-ematea: 5 euro.

2016/03/19 - 13:00

Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa eta finala
Uriola taberna | Plentzia
ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Uriola (13:00), El Puerto (17:00) eta Gorronдона (18:00) tabernetan izango dira saioak. Finala 21:30ean jokatuko dute Danontzat gaztetxean. Informazio gehiago: www.albe.eus

2016/03/19 - 19:00

Lentejitas y lentejuelas
antzezлана
Berango Antzokia | Berango
Juego de Damas taldea amateurragaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/19 - 20:00


Bermudez eta Eva Cabezasen umore-bakarrizketak
Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Encomediados zikloaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/03/19 - 20:00

Malmö antzezлana
Areetako musika-eskola | Getxo
Khea Ziater antzerki-taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

2016/03/19 - 20:00

El florido pensil niñas obra
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Tanttaka antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 12 euro.



Aretxan, Laita Cabrera eta Inaki du-lagur, Berango Antzokian, 2016.03.18. Argazkia: Iñaki du-lagur

Barbecho dantza-ikuskizuna, Leioan

Natxo Montero oso gaztetik hasi zen dantza tradizionalaren munduan; gero dantza-garaiidean eta antzeztan ibili zen. 2008an sortu zuen konpainia, eta *Cuadra-T* eta *Carni di prima qualita* ikuskizunak plazaratu zituen; hainbat sari jaso ditu lan horientatik. *Barbecho* da bere lan berria. ◀

Noiz: Apirilak 8, barikua.
Ordua: 20:30
Non: Kultur Leioako entzungela.
Sarrera: 10 euro.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak
Sopelan

Martxoaren 20ra arte Kurtzio kultur etxean

egizul

hiruka

Asteunetan
11:00-14:00 eta 16:00-20:00
Aste-akabuetan
11:00-14:00 eta 17:00-20:00

Akitania-Euskadi euroeskualdea, Umore Azokan

Akitania-Euskadi euroeskualdeak, Etxepare Euskal Institutuak eta Euskal Kultur Erakundeak lankidetzaz hitzarmena izenpetu dute. Horren bitartez, sinatzaileek lankidetzan jardungo dute norabide bitan: alde batetik, Ipar eta Hego Euskal Herriko kultur sortzaileen lanak Akitaniako diziplina ezberdinetako jaialdi eta ekitaldietan erakutsiko dituzte, eta beste alde batetik, Akitaniako eta Euskal Herriko kultur sortzaile eta eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta elkarlana sustatuko dituzte. Horrenbestez, Leioako Umore Azokan maiatzaren 19tik 22ra egingo da euskal eta akitaniar programatzaile eta profesionalen arteko topaketa.

Pantxoa Etxegoin EKEren zuzendariaren berbetan, «gainbalio bat nahi dugu ekarri euroeskualde berri horretan: euskal kultura hor egongo dela bermatzea eta egiazko trukaketa bat gauzatuko dela». Aizpea Goenaga Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak, ostera, Nafarroa gehitzearen garrantzia azpimarratu du, «euskararen eremua ere izanik, Institutuak bertako euskarazko kultura ere nazioartean sustatzen duelako». Sortzaileak hitzarmenaren muinean daudela nabarmendu du, eta haien ekarpenak jasotzeko prestasuna adierazi du. ◀

Aste Santuko tailerrak, Altzagan eta Astrabuduan

Sormena landuz, neska-mutilek astialdia aprobetxatzeko tailerrak antolatu dituzte Aste Santuko eskola-oporralldirako Erandioko liburutegiek. Hala, Astrabuduko Josu Murueta bibliotekan, martxoaren 21etik 23ra egingo dituzten ikastaroak hauek izango dira: hurrenez hurren, kultur arteko maskaren tailerra, mandalen eta gezurrezko beirategien tailerra, eta *Workshop pirates* izeneko jardura. Aipatutako azken hori ingelesez izango da. Pazko-astera helduta, Altzagako liburutegian izango dira ekimenak: kultur arteko maskaren tailerra, martxoaren 29an; mandalen eta gezurrezko beirategien tailerrak, martxoaren 30ean; postal tridimentsionalen tailerra, martxoaren 31n; eta *Workshop pirates* (ingelesez), apirilaren 1ean.

Jardura denak 6 eta 12 urte arteko umei begirakoak dira; ordutegia, 11:00etatik 13:00etara izango da, Astrabuduan zein Altzagan. Bestalde, parte-hartzaileek ez dute ezer ere ordaindu behar izango, ezta izenik eman ere. ◀



Marko Makakoren abenturakaz gozatzeko aukera egongo da.

Umeentzako zinema, Areetan

Haur Zinema Jardunaldien 33. ekitaldia antolatu du Getxoko Kultur Etxeak. Martxoaren 29tik apirilaren 2ra bost pelikula egongo dira ikusgai; horietatik bi, euskaraz.

Martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitartean, gazte- txoek animazio-zinemaz gozatzeko aukera edukiko dute; aurtan ere, Aste Santuko eskola-oporralldia dela-eta, Getxoko Kultur Etxeak Haur Zinema Jardunaldiak antolatu baititu. Hala, guztira, bost film proiektatuko dira; horietatik bi, euskaraz. Emanaldi denak Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango dira, 17:00etan; saio bakoitzeko sarrerak 2,10 euroko prezioa edukiko du.

Apirilaren 29an, martitzena, abiatuko dira jardunaldiak *Atrapa la bandera* animaziozko pelikulagaz. Biharamunean, eguaztenean, *Marko makako eta Karibeko primateak* euskarazko filmaz gozatu ahal izango da haur-zinema zikloan. Jardunaldien erdialdean, egunean, hilak 31, *Inside Out-Del reves* Pixarren azken ekoizpen arrakastatsua izango da protagonista; eta barikuan, euskarazko beste film

Filmak

Proiektzio denak Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango dira, 17:00etan; saio bakoitzeko sarrerak 2,10 euroko prezioa edukiko du.

Martxoak 29, martitzena

Atrapa la bandera.

Martxoak 30, eguaztena

Marmo Makako eta Karibeko primateak.

Martxoak 31, eguena

Inside out-Del reves.

Apirilak 1, barikua

Koko, dragoi txikia.

Apirilak 2, zapatua

Hotel Transilvania 2.

bat proiektatuko dute Andres Isasin: *Koko, dragoi txikia*, hain zuzen ere. Azkenik, zikloa biribiltzeko, zapatuan *Hotel Transilvania 2* eskainiko dute. ◀

Martxan da Sopelako jaietako kartel-lehiaketa

Sopelako Jai Batzordea burubelari dabil 2016ko festetarako ekimenak antolatzen. Urtero legez, jaietako kartelen lehiaketa antolatu dute. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 12a, eguena, izango da, 20:00ak arte. Oinarrietan aipatzen denez, lehiaketa horretan, gura duten herritar denek parte hartu ahal

izango dute, banaka edo taldeka; egile bakoitzeko, lan bakarra onartuko da. 18 urtetik gorako kategoriaren irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta sopeloztar onenak, 100 euro; gainerako kategoriakoek opariak izango dituzte. Lan guztiak Kurtzion ipiniko dituzte ekainaren 1etik uztailaren 3ra bitartean. ◀

info+: sopelakojaiak.blogspot.com



Ttipi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Bakarra, gurea euskalduna

Badira 11 urte guraso lehenengoz izan ginenetik eta 11 urte hauetan 11 biderrez suertatu zaigu hezkuntza mintzagai. Gurasook haurtzaindegia, ikastola, ikastetxe, herri eskola aukeratzean 11 irizpide izaten dugu, norberarena onena, eta erabaki hori bizitza osoan defendatuko dugu gure aitaren etxea izango balitz bezala.

Matrikulazio kanpaina izan dugu orain dela gutxira arte eta, Marmotaren egunean bezala, mintzagaia errepikatu zaigu.

«Guk etxetik gertu nahi dugu» ez dakigu zenbat alditan entzun dugun eta oso ulergarria da erosotasunari lehentasuna ematea. Erosotasunaren maila gorena ere entzunda daukagu: «guk aitite-amamaren etxe ondoan matrikulatu nahi ditugu» aitite-amamari bila joateko hobeto datorkielako. «Auzoko eskola nahiago dugu» modu hone tan umeen lagunak aukeratuko ditugulakoan. «Guk kristau eskola nahi dugu, «betikoa» delako eta oso hezkuntza maila altua dutelako», hauxe ere irizpide errespetagarria da. «Gu eskola publikoaren aldekoak gara, hezkuntza doakoa beharko lukeelako» guztiok iritzi berekoak garela esango genuke guk. «Ikastetxea herritik kanpo dagoenez kirol instalazio ederrak dituzte». Hara, gure umeak Olinpiadetara!

Seguruenik 11 urte hauetan beste 11 arrazoi gehiago entzun dugu, guztiak ulergarriak eta errespetagarriak. «Etorkizunean hizkuntzak beharko dituzte lan ona izateko» eta ez dute gezurrik esaten; baina, askotan, hizkuntzari garrantzitsuena eta gertue na ahazten zaigu.

Guk orain dela 11 urte irizpideen hurrenkera egiterakoan oso argi izan genuen lehenengoa zein izango zen: hezkuntza eredua ahalik eta euskaldunena nahi genuen, seme-alaba euskaldunak izatea nahi genuelako. Gurea ere errespetagarria, ezta? ◀

«*Ez dut neure burua beste lanbide batean irudikatzen*»

Mohamed El Ftouh Bilbora etorritako sukaldari marokoarrak irabazi du EAEko ostalaritza-eskolen arteko Eusko Label Pintxoan Lehiaketako VII. edizioa, Leioa ordezkatzuz. Orain dela urte bi heldu zen Euskal Herrira, eta Leioara joan da ikasturteko astegun denetan, hemengo sukaldaritzaren sekretuak ezagutzera. Orain, praktikak egiten dabil Bilbon. Tetuandarrak 25 urte ditu; berbaera lasai eta umila darabil, eta begiak isiotu egiten zaizkio sukaldaritzaz jardutean.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Zelan hartu duzu Eusko Label Pintxoan Lehiaketaren VII. edizioa irabazi izana?

Ondo. Oso esperientzia ona izan da niretzat. Eskertzekoa da Hazi Fundazioak aukera hori eman izana Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ostalaritza-ikasle denei. Talentua erakusteko eta ezagutzak partekatzeko aukera bat izan da.

Familia harro izango duzu, ezta?

Bai, jakina!

Zer eragin zuen *Labelburger* eta *patata testuran* izeneko zure zankarroi-pintxoaren besteengandik ezberdina eta hobea izatea?

Hasieratik, ideia nahiko harrigarria izan zen. Irudikatu genuen hanburgesa bat, eta hori probatzeko orduan, apurtzean, handik Arabako patataren eta Idiazabal gaztaren saltsa aterako zela. Ezusteko bat prestatzea modukoa zirudien, eta hori egin genuen. Ideia hori aukeratu nuen txapelketaren aurretik, platera pentsatzen genbiltzanean, Jon Iztueta nire irakasleagaz berba egin nuelako. Berak aholkatu zidan presio-eltzea eta ohiko teknikak alde batera uztea, nahiz eta zankarroia haragi oso gogorra izan. Okela hori egiteko presio-eltzearen beharra dagoez eta txapelketa bi orduan egingo zenez, zail samarra iruditu zitzaidan...

Zelan konpondu zenuen arazo hori?

Pentsatu genuen presio-eltzea zelan baztertu, eta Jo-

nek esan zidan haragia xehatzeko. Hasieran, ni ez nengoen ideia horregaz oso konbentzita, kar-kar. Bakoitzak bere sukaldaritza-unibertsoa dauka, eta hasieran ideiak ez ninduen harrapatu: okela txikitzea haragiaren kalitatea hondatzea zela iruditu zitzaidan. Baina, apurka-apurka, irakasleak konbentzitu egin ninduen, eta horrela egin genuen platera. Azkenean, arriskatu egin genuen. Haragiaz gainera,

“Zankarroi-hanburgesa bat irudikatu genuen, eta apurtzean, Arabako patataren eta Idiazabal gaztaren saltsa aterako zen”

hainbat kontu zeroatzan: patata-purea; patata frijituak; okela-saltsa, zankarroiaren puntakaz eginkoa, eta errukula-emultsioa, besterik ez. Horixe da dena. Arriskatu genuen, eta irabazi!

Galdakaon, Eusko Labelen txapelketan, Leioako ostalaritza Eskolako ordezkaria izan zinen. Zelan egin zenuten aukeraketa?

Lehenengoz, iragarkia ipini zuten Eskolako ohar-tauletan, txapelketaren berri emateko. Horregaz batera, bidea zabaltu zuten gura zuten ikasleek izena

eman zezaten. Handik, 11 inskribatu ginen. Egun batean, zuzendariak batu gintuen, eta iragarri zigun txapelketarako ordezkari bakarra hautatuko zutela. Eta barne-mailako lehiaketa egin genuen, beste egun batean. Patatak eta oilaskoa eman zizkiguten, horregaz bakoitzak bere platera egin zezan. Azkenean, nik irabazi nuen.

Zer prestatu zenuen?

Oilasko-papar errea, eta labean egina. Gaineratik ez-kaia zuen, kurruskaria; txanpinoizko eta kipulazko *Duxelles* saltsaz betetako patata; eta txanpinoizko makarroi bat, estofatuta, bere kremaz betea. Ondoan, saltsa prestatu nuen, zukua lodituz. Nire platera gus-tatu zitzaieenez, txapelketarako hautatu ninduten.

Lehenengo aldia da horrelako txapelketaren batean parte hartzen duzuna?

Ez. Aurretik, Marokon ere lehiaketa batean izana naiz, eta han ere irabazi nuen. Casablancako Cremai turismo-azokan egin zuten ostalaritzako ikasleentzako lehiaketa, hemen egiten duten legez. Txikia nintzenetik gustatu izan zait sukaldaritza, eta aspaldidanik daukat hartuta erabakia sukaldari izateko. Ez dut neure burua beste lanbideren batean irudikatzen, nahiz eta soldata handiagoa izan. Ondo sentitzen naiz sukaldean; gustatzen zait. Jakin badakit lan oso gogorra dela, horregatik gogokoa izango ez banu, utziko nuke. Ez da nik neuk esaten dudana kontua, sukaldari denek horrela egiten dute berba.



Estresa, sua, denetarik jakin beharra, lehengaiak ezagutzea, higiene ondo baino hobeto gordetzea, kudeaketa, materiala kontrolpean izatea... kontu asko dira. Edo gustukoa duzu, ala hobe da erretiratzea.

Zelan erabaki zenuen Euskal Herrira etortzea?

Kasualitatez izan zen hori. Marokon ikasketak burutu ostean, kanpora irtetea erabaki nuen, beste kulturaren bat ezagutzeko eta nire maila hobetzeko. Hemengo maila Marokokoa baino apur bat altuago da, karrera garatzeari begira, batez ere. Han luxuzko hotelak eta jatetxe onak badira, baina nik gura dut European urte batzuk eman. Badakit denbora laburragoan formakuntza hobea lortuko dudala. Marokon ere badira chef onak, baina beste kontu batzuetan, apur bat atzerago dago. Bestalde, nire anaia bat hemen bizi da, Bilbon, hemen dabilelako lanean. Berak esan zidan ea zergatik ez nentorren hemengo eskola batera, eta hor sortu zen ideia. Izena eman nuen, eta hemen nago.

Pozik Leioan?

Bai. Oso pozik nabil Leioan. Lehenengo aldia da Espainiako iparraldean nagoela; aurretik sarritan bidaiatu dut Espainiara, baina hegoaldera, gertu dugulako. Ia udaro joan naiz Sevillara edo Malagara, baina hau oso ezberdina da. Bestalde, ez nekien hemen hain maila gastronomiko ona zegoenik, edo kalitatezko produktuak zeudenik. Euskal gastronomia, etorri ondoren ezagutu dut. Kasualitatez etorri nintzen hona ikastera, eta onena tokatu zait; oso gustura nago.

tzen hona ikastera, eta onena tokatu zait; oso gustura nago.

Euskal sukaldaritzaren zein osagaik harritu zaitu?

Bat baino gehiago dago, baina bakailaoa lehenetsiko nuke, batez ere pil-pil eran. Piper txorizeroa ere berezia da. Aurretik ezagutzen ez nituen lehengaiak dira, baina kalitate oso ona daukate biek.

“ Etorri aurretik, ez nekien hemen hain maila gastronomiko ona zegoenik, edo kalitatezko produktuak zeudenik ”

Euskal sukaldaritza tradizionalen, txerria dugu lehengai garrantzitsuenetako bat. Horrek trabarik sortu dizu?

Batzuetan, bai. Musulmana naiz, eta erlijioak debekatzen dit txerri-haragia dastatzea. Ukitu, erabili eta kozina dezaket, baina jatearena niretzat arazoa da. Kontua horrela da; kultura horretan jaio naiz; nire erlijioa da, eta ezin dut aldatu.

Zankarroi-pintxoak ere urdaia zeukan, ezta?

Urdai apur bat zeukan, okelagaz txikitzeke, bai.

Aurten amaituko duzu karrera?

Bai. Praktikak egiten nabil, aurretik modulu teoriko denak gainditu baititut, eta orain praktiketako hiru hilabete dagozkit. Bilboko Zarate jatetxean nabil, Poza Lizentziatua kalean, Sergio Ortiz chefagaz. Sartu berria naiz, astebete besterik ez dut-eta egin, baina ondo dago. Oso gustura nago, ondo irakasten digulako. Gainera, jatetxeak orain dela gutxi lortu zuen Michelin Gidako izarra, pasa den urtarrian.

Praktiken ostean, zer egingo duzu?

Pentsatu dut hemen urte batzuk geratzea, jatetxe onetan behar egiteko, eta eskarmentua hartzeko, eta ondoren nire herrialdera bueltatzea. Hori da orain arte dudan asmoa.

Lehen esan duzu txikitatik izan duzula sukaldaritzarako grina.

Bai. Etxean, amagaz. Amak pastelak, gozokiak, jakiak... gauza asko egiten zituen. Txikitan, etxean ibiltzen nintzen berari begira, eta galdetzen nion: «hori zer da? Zergatik egiten duzu? Horrek zer darama?». Garai haietatik nauka harrapatuta sukaldaritzak.

Ama sukaldari ona izango duzu.

Bai. Oso ezaguna da familian, egiten dituen jakienatik. Nik garai hartan erabaki nuen sukaldari izango nintzela. Txikitan, eskolara nindoala, gozodenda eta jatetxeen aurretik igarotzen nintzenean, geratu egiten nintzen begira gozokiak eta jakiak zelan egiten zituzten. Apurka-apurka galdezka hasi nintzen, eta gero Interneten arakatzten ere bai. Horrela joan da kontua. Sukaldaritza ikasi nuen Marokon, titulua lortu nuen, eta praktika asko egin dut, urtebetetik gora. Beharreen ere izan naiz, eta, azkenean, aldatzea eta Europara etortzea erabaki nuen.

Marokon zertan egin duzu lan?

Sukaldean ibili naiz.

Badago aldea hemengo eta Marokoko sukaldaritzen artean?

Bai, apur bat ezberdinak dira. Guk hamaika espezia erabiltzen dugu. Hemen, ordea, gastronomia batez ere barazkietan oinarritzen da: porruak, piperrak eta abar. Guk sukaldaritza apur bat gogorragoa daukagu. Hori da ezberdintasun nagusia.

Etxeko sukaldean ibiltzea gustuko duenari gomen-datuko zenioke sukaldaritza-karrera egitea? Ala zaletasuna izatea bakarrik?

Norberaren arabera. Gauzak zelan ikusten dituen eta bere buruarentzat zer bide aurreikusi duen... Gastronomia gustukoa duenak sartu beharko luke; gustukoa ez badu, damutuko da. Ezagutu dut sukaldaritza egin eta gero lanbidea utzi duenik, estresagatik, batez ere. Lanbide gogorra da.

Telebistako sukaldaritza-saioak gogoko dituzu?

Bai. *Top Chef* bezalakoak gustatzen zaizkit.

HIRUKAko irakurleentzako mezuren bat?

Sukaldaritza mundu zoragarria da! On egin! ◀

Futbola, oinarritik euskaraz izeneko ekimenaren bidez, umeen kirol-astialdian euskararen erabilera sustatu gura du Erandioko Udalak, klubakaz batera.

Umeek mihia askatzen dute, futbolarik esker



Trebatzaileen arabera, hizkuntza-ohiturak bizpahiru urtean zeharo alda daitezke, lanagaz. © EUSPORT

Denboraldi honetan, Erandioko 250 bat ume eta gazte euskaraz erabiltzeko aukera izan dute gogokoen duten kirola egitean: futboleak. Lehenengo saiotik, entrenamenduak euskaraz eta kalitatez izan zitzaizkien elkarlanean jardun dute Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak, Astrabuduako Futbol Taldeak, Erandio Kirol Elkartek eta Eusport enpresak, Koikili Lertxundi Athleticeko jokalarik ohiaren parte-hartze zuzenagaz. Eki-menari segida emango diote datorren denboraldian, aipatutako klub bien talde gehiagoetara eta futbol-eskoletara zabalduz. Etorkizunean, Betiko Neskak eta saskibaloia eta eskubaloia taldeak inplikatu gura dituzte, nesken kirol-astialdian gehiago eragiteko.

Futbola, oinarritik euskaraz programan inplikatu dira Astrabuduako benjamin-mailako lau talde eta Erandio

Kirol Elkarteko dozena bat talde, benjamin-, kimu- eta haur-kategorietan. Hala ere, klub horretan zortzi taldetan jarri zuten arreta. Denera, egitasmoaz gozatu duten San Lorentzoko umeen %60 inguru D eredukoak dira, eta %85 dira ehun urtetik gorako klubean. Erabileraren emaitzak positiboak izan arren, apalak izan dira, aurretik entrenamenduetan euskaraz berba egiteko ohiturarik ez baitzuten. Erabilerak gora egin du zortzi taldetan, hizkuntza-zoru berria %25 eta %50 bitartera ere heldu da.

Egokiñe Angulo Euskara zinegotziak gogorarazi duenez, «futbolari ona izateko, ikasi eta entrenatu egin behar bada», eta formazioa eskuratzeari gainera, «partida nahikotxo» ere jokatu beharra badago praktika hartzeko, «euskarak ere, beste edozein hizkuntzak bezala, ikasteko denbo-

ra eta leku egokia behar ditu, batetik, eta, beste aldetik, praktikarako esparruak eta guneak». Angulok akordura ekarri duenez, eskola-umeek ikas-tetxeetako jarduera akademikoetan ematen dituzten orduak esna dauden denbora osoaren %16 baino ez dira. Horregatik, Udal Gobernuak uste du «eskola-esparrutik kanpo egiten diren jarduera eta ekintza denak garrantzi handikoak direla eskuratutako hizkuntza-gaitasunak garatzeko».

Koikili Lertxundi Eusport enpresako zuzendariak azaldu duenez, hasierako diagnostikoaren datu pozgarriena da ia ume denek ulertu egiten dutela euskaraz. Horregaz batera, elkartek biren jarrera positiboa izan da, baita euskaraz ulertzen ez duten ki-deena ere. Erandio Kirol Elkartean hizkuntza-irizpideen arabera hautatutako koordinatzaileak izateak asko

lagundu du. Ume-taldeak aukeratuta, denboraldiko planifikazioa egin zuten, saioak egin aurretik entrenatzaileei laguntzeko, euren fitxak, planifikazio-ereduak eta beharrezko materialak eta euskarriak izan zitzaizkien, euskaraz eta kalitate onekoak. Azkenik, entrenatzaileek trebatzaileen laguntza teknikoa izan dute zelaian. Lertxundik azpimarratu duenez, teknikariak «borondate oso ona» agertu diote proiektuari, eta horrek erraztu du motibazioak, ulermenak eta erabilerak elkar elikatzea, bai eurakaz, bai umeakaz. Gurasoen artean ere landu da egitasmoa, eta eurretako batzuek erregistroa aldatu eta animoak euskaraz ematen dituzte orain. Lertxundik nabarmendu du «umeen jarrera oso pozgarria» izan dela, «bereziki jatorri hegoamerikarra dutenena», hasieran denei euskaraz egitea «arraro» egiten zitzaizkien arren. ◀

Errotabarri konpontzeko esleipen-lanak abiatu ditu Plentziako Udalak

Plentziako Udalak adierazi du Errotabarri kirol-azpiegiturak legalizatzeko baldintza eta preskripzioak onartu dituela. Beraz, Udalak bat dator Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak itsas eta lur-eremu publiko hori hamar urtez emateko ipinitako baldintzakaz. Futbol-zelaia konpontzeko eta oinezkoen ondoko bidea egokitzeko lanen prozesuari hasiera eman dio Udalak, kontzesiorako Ministerioak egindako komunikazioa idatziz onartzean. Hala, konpondutako zelaian hasiko du datorren denboraldia Plentziako Kirol Elkartek. Gainera, 10 urteko epea zenbatzen hasi da, eta, beraz, behin



betiko lekua bilatzeko epea ere bai. Udaleko Zerbitzu Juridikoa eta Arlo Teknikoa Errotabarriko obren lizitazioa ateratzeko izapideak erraztu eta

bizkortzeko lanetan dabilta. Udalak 200.000 euroko aurrekontua dauka lan horietarako; alderdi denek iaz horrela adostu zuten. ◀

Film laburren lehiaketa baloiaz pentsarazteko

Euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko, *Thinking Football* izeneko film laburren lehiaketa antolatu dute Loraldiak eta Athletic Fundazioak. Apirilean bat egingo dute Loraldia Festivalak eta film-festivalak. Hala, elkarlanean, lantalde biek martxan ipini dute euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena sustatzeko lehiaketa. Gaia: «futbola pentsatzen», eta iraupena gehienez minutu bikoia izango da. Filmik onenak 1.200 euroko saria irabaziko du, eta epaimahaiak erabakitako filmak San Mamesen proiektatuko dira partida-egunetan, eta egileak gonbidatuko dituzte. ◀

Sopelan herritarrek, errepidera

Elkartasunak eta kirolak elkarri eskua emango diote domekan, Sopelan. Izan ere, zenbat-gura korrikalarik euren zangoak baliatuko dituzte XIV. Herri Lasterketan, Stop Sanfilippo fundazioari laguntzeko. Munarri atletismo-taldeak antolatutako proban izena emateko, bina euro ordainduko dituzte lasterkari senior eta beteranoek, eta bana, gainontzekoek. Fundazioak izen bera duen gaixotasun arraroa ikertzeko eta gaixoak artatzeko tratamenduak bultzatzen ditu. Inskripzioa egiteko epe-muga eguna izango da, 22:00etan. Horretarako, honako lekuetara jo daiteke: Kurtzio kultur etxea (18:00etatik 20:00etara), Algortako Torrene ka-

leko Kantxa Kirol Moda, eta Bilboko Euskalduna kaleko Deportes Bikiladenda, eta Munarri taldearen webgunea. Proba goizeko 10:30ean abiatuko da, Sopelako udaletxeko plazan. Ordu horretan ekingo diote 400 metroko lasterketari parte-hartzaile txikiek, 2008an eta harrezkero jaiotako umeek. Handik aurrera, hamar minutuan behin irtengo dira hurrengo kategoriak: umetxoak (2006an eta 2007an jaiotakoak), umeak (2004-2005), gaztetxoak (2002-2003) eta kadete zein gazteak (1999-2001), hurrenez hurren 800, 1.200, 1.500 eta 3.000 metro egiteko. 11:30ean, helduen txanda izango da. Horiek 7.700 metroko ibilbideari aurre egin beharko diote. ◀



Maila guztietan, lehenengo hiru sailkatuek garaikur bana jasoko dute. © MUNARRI



Zaleek eurek parte hartu zuten skate-parkea diseinatzeko prozesuan.

Skate-parkea eraikiko du aurten Sopelako Udalak

Skateboardaren zaleek topagune berria izango dute, Sopelan. Bertako Udalak skate-parke bat eraikiko du aurten, Arriatera-Atxabiribil hondartzako labarren gaineko lursail batean. Gontzal Hermosilla alkateak adierazi duenez, esleipena behin-behinean onartuta dago. Lanek 180.000 bat euroko aurrekontua dute eta aurten bertan amaitzea espero dute. 2014an aurreko Udal Gobernuak martxan ipini zuen prozesu parte-hartzailearen ondorioa da skate-parkearen egitasmoa. Hainbat alditan aldatu dute kokapena, hasieran Urkoko ibarrean eraikitzekoa baitzen, baina

URA agentziak ipinitako baldintzak zirela-eta, beste gune batera eroatea erabaki zuten. Balea parkea edo Barinatxe hondartzako aparkalekua ere aztertu zituzten. Azkenean, Getxoko Kantera «skate-katedralaren» kokalekuaren antz handia izango du haututako eremuak. Printzipioz, adin eta maila denetako zaleentzat diseinatu ta egongo da eta bainuontzi bi izango ditu, udaleko arduradunen esanetan. Hermosillak adierazi du Bilduk abiatutako proiektua babestu duela, baina esan duenez gurago luke «Sopelako gazteentzat eskuragarriago dagoen beste inguru batean ipini izana». ◀

DACIA GAMA

Dacia España
 Dacia ESP

www.dacia.es / 91 506 53 59 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

Izan ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.

Dacia gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8 eta 8,0 bitartean. CO₂-aren isuria (gr/km) 99 eta 185 bitartean.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri

Dacia gomendatzen du

Getxoko waterpolo-saria, laster



Fadurako igerilekuetan egingo dira waterpolo-partida denak. © WP CAMP

Euskal Herriko, Galiziako, Aragoiko eta Kataluniako dozena bat haur-talde misto lehiatuko da Getxoko WP Camp waterpolo-sariaren bigarren edizioan, martxoaren 25etik 27ra. Taldeak multzo bitan banatuko dituzte. Multzo horian, Leioak eta Getxok jardungo dute, Vigo, Helios, Sestao eta gizonezko Athletic-Barcelonetagaz batera. Sariketaren lehen partida Leioak eta Vigok jokatuko dute barikuan, goizeko 10:00etan. Multzo berdean, Askartzak jokatuko du, Bidasoa XXI, Catalunya, Santiago eta nesken Athletic-Barcelonetagaz. Gainera, Coruña iazko irabazlea ere azken multzo horretan egingo da. Lehenengo fasean, ligax-

ka bi jokatuko dituzte Fadurako igerilekuetan. Multzo bakoitzeko 5. eta 6. sailkatuak sailkapen orokorreko 9. eta 12. bitarteko postuengatik lehiatuko dira bigarren fasean. Ligaxketan 3. eta 4. geratutakoek, ordea, 5. eta 8. bitartekoak banatuko dituzte. Azkenik, lehenengo faseko irabazle eta bigarrenek lauko finalean jardungo dute domekan, 13:30etik aurrera.

Partidaz gainera, sariketak izango du bestelakorik ere: hainbat berbal-di egingo dituzte, eta zapatuan, talde denen aurkezpen ofiziala egingo dute, 17:00etan. Ekimena WP Campeak eta Getxo Igeriketa Waterpolo elkarteak antolatu dute, Getxo Kirolak udal erkundearen laguntzagaz. ◀

Boxeolari getxoztarrak, Bizkaian txapeldun

Bizkaiko gerriko bina lortu dituzte Algortako Izarrak eta Itzurbaltzeta/Romoko Bunk3r boxeotaldeek. Otsailaren 28an izan zen, Sestaoko Benedicta kiroldegian.

Oilar-pisuan, Bunk3rreko Danel Abando Bizkaiko txapeldun izendatu zuten, finalean Manpo Gym taldeko Denis Diaz irabazita. Pisu arinean lortu zuen Bunk3rrek bere bigarren garaipena: Jon Nuñezek jantzi zuen gerrikoa, Ibon Larrinaga aurreko Bizkaiko eta oraingo Euskadiko txapeldun itzurbaltzetarraren aurkako finalean. Larrinagak MGZ enpresagaz sinatu du kontratu profesionala. Bestalde, Izarrak

taldeko garaipenak welter-pisuan eta pisu erdiastunean izan ziren. Welter-mailan, Diego Uribe izan zen garaile, Manpo Gym taldeko Reini Arreguiri irabazi ondoren. Kategoria erdiastunean, Guillermo Riverok Bilboboxing taldeko Jon Ander Perea garaitu zuen. Bizkaiko txapeldun berriak zapatuan izango dira Faduran, Euskadiko Txapelketan. Kiroldegiak 10:00etan zabalduko ditu ateak, goizeko saiorako. Bigarren saioa 17:00etan hasiko da. Sarrerak aurretik eros daitezke 10 euroan atal bakoitzeko, edo leihatilan bertan, 12 euroan goizeko saiorakoak, eta 15 euroan arrastikorakoak. ◀



Zapaturako prestatzen dabil Jon Nuñez. © EUSKOBOK

Irati Urbaneja da Bizkaiko tenis-txapeldun berria

Irati Urbaneja Salazar Fadura Tenis Taldeko jokalaria getxoztarra Bizkaiko tenis-txapeldun berria da, haur-kategorian. Urbaneja garaile izan zen pasa den martxoaren 6an, Jolasetan jokatutako finalean, Martiartuko tenis-klubeko kide Oihane Escribano Izaguirri 6-2 eta 6-2 irabazita. Urbaneja zen favorito Bizkaiko garaikurra eskuratzeko, lehen multzoko burua baitzen. Finalaren aurretik, bere nagusitasuna erakutsi zuen, Nerea Barrueta eta Nerea Bayo kanporatuz. Fadurako taldeagaz hasi baino lehenago, Urbaneja Abaroa Barrikako Tenis Kirol Taldeko bazkide izan zen. ◀

Udalek kirol-azpiegiturretan laguntzak dituzte

Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Urdu-lizko udalek kirol-azpiegiturak hobetzeko foru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte apirilaren 15era arte. Bizkaiko Foru Aldundiak 250.000 euro bideratuko ditu 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan egun dauden kirol-azpiegiturak eraberritu, zaharberritu edo berrerabiltzeko. Euskara eta Kultura Saileko Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren ustez, aipatutako dirua «gutxi izanik ere, laguntza handia izan daiteke halako instalazioen mantentze-lan eta eguneraketarako». Gehienez ere, udal bakoitzak 15.000 euro jasoko ditu. ◀

Waterpoloko haur-selekzioak Valladoliden dira

Uribe Kostako hamar ume lehiatuko dira aste-akabu honetan Espainiako Waterpolo Haur Txapelketan, Valladoliden. Eguenean, EAEko nesken selekzioak Valentzia, Madril eta Galizia izango ditu arerio. Mutilek, oster, Gaztela-Mantxa, Kanariak eta Madril aurka jokatuko dute. Kanporaketak gaindituz gero, zapatuan izango lukete bigarren fasea. Finalak domekan izango lirateke. Eskualdeko jokariak hurrengoak dira: Ane Salazar, Ane Arana, Naroa Etxaniz, Nora Toledo, Erika Lopez, Maider Sobera, Joseba Uriarte, Nicolas Gorbeña, Iker Argote eta Alejandro Camara. ◀

Leioak patinaje artistikoaren saria hartuko du

Leioako Kandelazubieta kiroldegian egingo da Leioako Udalaren Patinaje Artistikoko VII. Txapelketa, datorren zapatuan, hilak 19, goizeko 09:00etatik aurrera. Edizio horretan, Irristaketa Leioa taldeaz gainera, bertan izango dira euskal klub hauek: Gira Getxo, Ugaoko eskola, Arrigorri, Baratzalde, Lau Txirrinka eta Gurutzeta. Horiez gainera, kanpotik ere hainbat etorriko dira: Hockey Langreo, Ancora eta Virgen de la Luz (Asturias), Piagos-Vioño, EMPA eta La Merced Roller-danz (Kantabria), Artiolid-Zaratan eta Patin Soria (Gaztela). Txapelketak Vic-rila fundazioaren babes dauka. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

CALAISAren

kontzerturako 5 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Apirilak 10, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Apirilaren 5a baino lehenago,
helarazi erantzuna, zure izen-deiturak
eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Horoskopoa



Ura

(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Indarra zure alde dago. Espero duzuna jasoko duzu, baina zure aldetik zer bait ere ipini beharko duzu, ezer ez baitator berez.



Otsoa

(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Badakizu zeinek galduko duen Topagunerako autobusa lo geratuko delako? Asmatu duzu! Hobe iratzargailu bi eta mugikorrek alarma ipini!



Adarra

(Otsailak 19-Martxoak 20)

Batzuetan, horoskopoko honek arriskuak hartu, eta mezu sakon eta zehatzak argitzen dizkizu, oraingoan ere bai: iaz baino urtebete zaharragoa zara.



Aitzurra

(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zure gelako armiarmak ere ikaratuta dituzu, azken boladan darabilzun alferkeriagaz. Nagiak astindu, eta ekin beharri.



Hostoa

(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Aberri Eguneako mezu politikoak beti dira gozagoak, txosnatik entzuten badira eta txakolina bizkaitarra bada.



Eguzkia

(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Berdin da norantz zoazen eta zenbateko presa daukazu, beste nasatik zuretik baino lehenago pasatuko da tren, birritan gainera.



Garia

(Ekainak 19-Uztailak 18)

Garaia da zure jarrerari mugaren bat ipintzeko. Ezin zara ibili egun osoan beharrean. Baliatu opor-garaia, eta pentsatu beste edozertan.



Lastoa

(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Beti arrazoia eduki gura izatea ez da posible, estatistika eta probabilitateagatik bada ere. Ondokoei entzun, lantzean behin.



Iratzea

(Abuztuak 18-Irailak 16)

Nahiz eta betiko ezagunakaz atera, jende asko ezagutuko duzu datozen egunotan. Ahaleginduz gero, harreman berriak egin ditzakezu.



Meta

(Irailak 17-Urriak 16)

Kirola egitea osasuntsua da berez, baina gehiegitan praktikatzu gero, kaltegarri izatera hel liteke. Zaindu zure taupadak!



Hazia

(Urriak 17-Azaroak 15)

Arazoen konponbidea behin eta berriro atzeratzen baduzu, zure axolagabekeria horrek istiluren batean sartuko zaitu.



Negua

(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zuretzat ohi baino denbora gehiago izango duzu datozen egunotan. Horiek baliatu eta zaindu zaitenez, bizitzak merezi du-eta!

Zorion agurrak

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus

94 491 13 37

5€



VERONICA
ALGORTA
Etxekoan partez

Zorionak, Vero!!! Oporraldia dator, eta zure urtebetetzea ospatzeko aukera ederra izango dugu, ea kaña batzuetara gonbidatzen gaituzun!! Jarraitu beti bezain alai... Mosuak!



HAIZEA
ALGORTA
Familia txikitxoaren partez

Hain gutxi falta da, hurrengo egunetan zure aurpegitxo ikusteko.... Musutan blai utziko zaitugu. Hementxe gaituzu denok, zure izena daraman amatxoren sabelari begira. Ondo etorri, Haizea!



LARA ETA ADRIAN
BILBO
Lagunen partez

Zorionak, bikote! Poz-pozik gaude emandako berri onagatik, izeko-osaba paperean gaude jadanik... Ederrak zarete, eta mundura ekarriko duzuen «bitxitxo» politena izango da! Muxuak



IXONE
BEDIA
Kuadriaren partez

Apirilaren 1ean gure bediatar jatorrenak hamarkada berrira pasako da! Zorionak, Ixo!! Egun ederra igaroko dugu ospatzen, pilo bat musu amamen partez! Athleeeeeeeeeeeetic!!

Eskelak

Aurrerantzean eskelarik jarri behar baduzu, haxe da zure lekua

Tel.: 94 491 13 37

e-posta: publi@hiruka.eus

Alberto Agirre Requena

Zu bezalako gizon onek, arrastoa uzten dute.
Horri jarraituz, aurkituko dugu bidea.
Besarkada beroa eta gure indar guztiak familiarentzat.

Ozpintxuen partez

Munduan, ehun eta hogeita hamar milioi neskatxok eta emakumek jasan izan dute inoiz ablazioaren errituala, modu batean zein bestean. Malitarren hizkuntzan, banbaraz, erauzketari «seligili» esaten diote; «otoitz egiteko ezinbesteko garbiketa» esan nahi du.

Ablazioa

Tradizioaren izenean tortura

JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE

Klitoridektomia edo ablazioa da afrikar tradizioetan ohiturarik ankerrena eta traumatikoen. Ohitura horrek, gizonezkoen zirkunzizioarenak bezala, kanpoan du jatorria. Izan ere, arabiarrek zabaldu zuten. Koranean aipatzen da, baina ez ei du ondo argitzen «emakume guztiek, egoera guztietan, ablazioa egin behar dutenetz». Dena den, musulmanen artean zabaldu tako erritual gaitzesgarri horrek azkar zabaldu zituen bere garroak Afrikako kontinentean, eta zelan ez, fetitxeen herrian, magoen, konjuruen eta gaitzen herrian. Maliko herritar askorentzat, mundua inork ulertu eta gobernatu ezin ditzakeen indar arrotzez betea dago. Tradizioak eta kulturak oso errotuta daude, eta erauzketarena ezinbesteko baldintza omen da, kasu askotan, ezkontideen arteko zina bermatzeko. Bertako animisten artean ere, indar handia hartu zuen, eta horretaz baliatu ziren bestelako zentzua emateko, euren sinesmenei eusteko. Erauzketaren aldekoetan oso ohikoa da entzutea ablazioak emakumearen emankortasuna ziurtatzeaz gain, senarraren gogoa areagotzen duela, gizonarekiko fidelotasuna bermatzen laguntzen duela, emakumearen garbitasunarekin lotura duela, eta egin ezean, emakumezkoak hil egin ohi direla. Baina horiek «ipuinak» dira; errealitatea oso bestelakoa da. Odol-jarioak eta infekzioak izan ohi dituzte, eta sexu harremanetan, mina. Familia izatean, aparatu genitalak malgutasuna galtzen du, eta jaio berriaren burua umetokitik irteetan oso ohikoa da ernaltze-organoetan urradurak izatea, eta umea, ama edo biak hiltzea.

Gaur egun, berrogei bat lurraldetan baino gehiagotan egiten dute praktika hori: Malin, Egipton, Yemenen, Etiopian eta Somalian (horren kontrako lege bat ezar dezaten sinadura-bilketa kanpaina bat egiten dabilta egunotan), besteak beste. Munduan, hamar segundotik behin emakume bati egiten diote erauzketa. Minutuko, bospasei neskatxok jasan ohi dute praktika hori. Hirurehun eta berrogeik, orduero. Zortzi milak, egunero. Hiru milioik, urtero. Tartean, milaka neskatxo odolustuta hil dira, eta zenbaterik ez dagoen beste emakume askok bizi izandako

esperientzia anker hori lo-edo duela, bizi egin behar du. Halako praktikak egiten dituzten emakumeek ez dute prestakuntzarik, eta ez dute inolako neurririk hartzen mina arintzeko, ezta horren osteko sufimendua gutxitzeko ere. «Horrelaxe izan da beti, eta horrelaxe izan behar du» dela sinetsita egiten ei dute. Bizar-labanatxoa, ugerrak hartutako aiztoa, belarrak, nahikoa izango da edozein lekutan eta modutan errituala egiteko.

Behin egindakoan, neskatxoaren amak —berak ere pairatu arren— sekulako lasaialdia hartuko duela diote, alabak emakume izateko egin beharreko pausoa delakoan. Gaur egun, arabiar zein afrikar estatu askotan, familia dirudunek ospitaletan egiten dute, jakinda horrek ez duela libratuko neskatxoa, inondik inora, psikikoki eragingo dion traumatik.

Odolaren usaina

Hiru ablazio mota daude, batzuk besteak baino larriago eta krudelagoak. Musulmanek egiten dute «arinena»-edo: klitoriaren ertz bat ebaki. Afrikako herrialde gehienetan, aldiz, klitoria eta ezpainen txikiak ere moztzen dituzte. Bigarren mozketak hori garbitasunaren kontzeptuarekin lotzen dute. Hirugarrenean, traumatikoen, ezpainen handien zati bat ere kendu egiten dute. Bi ertzak josten dituzte, eta zulo txiki bat besterik ez dute uzten, txiza eta hilekoa irten ahal izateko.

Malira egindako bidaian ezagutu dugu Fatoumata Sinaba, duela berrogei bat urte hasi zen klitoridektomia egiten; bere amak ere egiten zuen. Ez omen daki zenbat urte dituen, hirurogeita hamar, laurogei-edo. Erabiltzen dituen instrumentuak erakusteko esatean, ezetz erantzun digu, baina bere alabak, Hawak, baietz esan du. Sasoi batean, Hawak ez zuen ulertuko zelan egon zitekeen tradizio horren kontra, baina gertuko baten alabaren heriotza bertatik bertara ikusteak begiak zabaldu dizkio, antza. «Ez nuke inondik inora onartuko familiako baten bati egitea; nahiago, ni lehenago hil».

Azken hamar urteotan, gero eta gehiago dira praktika horren kontra entzundako iritziak; bai

kanpoan, bai bertan egindako kanpainen askoren pentsamoldea aldatzen lagundu dute. Informazio gehiago izateko, geu ere Hawarekin izan gara, berak Moptin egiten du lan, FORWARD Emakumeen Osasun, Ikerketa eta Garapenerako Fundazioan (Foundation for Women's Health, Research and Development), eta oso ondo azaldu digu zer-nolako arazoak dauden erauzketaren inguruko uste usteleki aurre egiteko: «Malin, analfabetismoa oso zabaldua dago. Jendeak informazioa behar du, baina ez da erraza. Gainera, etnia askok, bereziki nekazari-herrixketan bizi direnek, ez dute begi onez ikusten arbasoengandik errotutako ohitura hori bertan behera uztea,

Emakume bati egiten diote erauzketa hamar segundotik behin; 340 emakumeri, orduero; 8.000ri, egunero; 3 milioiri, urtero

nahiz eta legeak kondenatu eta zigortu. Gainera, gurean sexuaz aritzea tabua da. Bizi garen gizartean, komunitateak indar handia du. Neskatxoak ez dira gurasoenak; komunitatearenak dira, eta horrek baldintzatzen du erabakia».

Amaiera aldera, diru-laguntzaz ere aritu da Hawa. Gobernuak elkarteari diru-laguntza txikia ematen dio. Aurrera egiteko, xaboia egiten dute, eta zera pentsatu dugu: ea horrek praktika nazkagarri horren zikina garbitzen laguntzen duen.

Hala ere, badago itxaropenerako zirrikiturik. Islamiar teologo aurrerakoi batzuen ustez, Koranak ohitura horren gainean esandakoak ez omen du inoiz praktika horren aldeko aipurik egiten; bakarrik aitatu egiten omen du, eta ez da inondik inora erauzketaren aldeko apologiarik egiten.

Horrek ez du lagunduko egindako kaltea arintzen, baina, behintzat, oraingo belaunaldiak horretaz jabetzeko eta aurpegia erakusteko balio badu, gaitz erdi. ◀



© REUTERS



Bai han, bai kanpoan egindako kanpainak askoren pentsamoldea aldatzen lagundu dute. © JUAN LUIS MUGERTZA



© REUTERS



Lehen/Orain

Avanzada (Leioa), 70. hamarkada



© JAVIER LANDETA

Erretratua

Ziortza Llona Lasagabaster

Euskaltzalea



Zahatoaren zozketa ohitura bihurtu da Erandion ospatzen duten Kanpomartxon; urtero, Ziortza Llonak margotzen du. Martxoaren 20an egingo dute jaia.

Daborduko, mende laurdena igaro da, Ziortza Llona Lasagabaster Erandiogoikoko bizilaguna Kanpomartxon urtero zozkatu ohi duten zahatoa margotzen hasi zenetik. Garai hartan, ikastolako umeak eskulanak egiten zituen, eskolaz kanpoko ordutegian. Izan ere, pare bat urtez artisau ibili zen azokaz azoka, larrugintzan. Gainera, euskaren aldeko ekimenetan gustura parte hartu izan du beti erandiogoikoarrak.

Llonak aitortzen du «hasiera batean zaila» iruditu zitzaioela bota bat pintatzea: «neurria hartu nion arte, ez zitzaidan erraza egin; orain, atzera begira, aitortu behar dut hasierako zahato haiek ez zirela kalitate handikoak. Kar-kar», dio Kanpomartxoko laguntzaileak. Orain, gogo handiz itxaroten du margotzeko unea: «zein izango da aurtengo kartela? Zelan geratuko da zahatoan?», galdetu ohi dio bere buruari. Izan ere, hasierako urteetan, Kanpomartxo ospatu behar zu-

ten lekua hartzen zuen gaitzat Llonak, ardo-bota pintatzeko. Hala ere, ospakizunak 25 urte egin ditu, eta 25 baino gutxiago dira Erandioko auzoak! Behin baino gehiagotan egin dute auzo batzuetan jaia. Hori dela-eta, gaur egun, Kanpomartxoren kartelean oinarritzen da Llona, zahatoa ko-

“Urtero galdetzen dut zahatoa nori tokatu zaion, ezagutzen dudana ala ez jakiteko”

lorenz janzteko. «Asko gozatzen dut», dioenez. Bestalde, Erandiogoikoko lagunak aitortzen duenez, urtero galdetzen du bota nori tokatu zaion: «Gustatzen zait jakitea nork eraman duen etxera, ea ezagutzen dudana», aitortu digu. Izan ere, zahatoa zozkatzen denako etxean egon ohi da euskaltzalea; berandu zozkatzen ei dute-eta! ◀

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua